



uk

60. zenbakia / 2004 maiatzak 2

IPARRA GALDU GABE

IPARRALDEA; SIN PERDER EL NORTE

GETXO 2004

EKINTZA / ARGIBIDEAK	LEKUA	EGUNA	ORDUA
Ikusentzunezko erakusketa interaktiboa Iparraldea ezagutzeko	Urgulleko Erakustaretoan	29tik 8ra	17:00 20:00
Pantxoa Echegoin (Euskal Kultur Erakundearen Zuzendaria) eta Daniel Landarten (zuzendariordea) hitzaldia	Urgulleko Aretxean	29an	20:00
Ezpeletako Ezpela Dantza Taldea eta Angeluko Dantza Taldea	Algortako Metro Plazan	2an	12:00
Txotxongilo Azika Taldea	Getxo Antzokian	2an	12:00 17:00
Ur Apalategi Idirinen literatur hitzaldia	Urgulleko Aretxean	4an	20:00
Zubiak Ipuin-musika emanaldia Koldo Amestoy kontaleriak eta Pantxix Bidart	Urgulleko Aretxean	5ean	20:00
Zuberoako kantak a cappella	Urgulleko Aretxean	6an	20:00
"Ipar Euskal Herria, orain eta bihar" mahai-ingurua Ipar Euskal Herriko alderdi politikoaren ordezkariak: Franxua Matia (PS), Beñat Inchausti(UDF), J.Michel Galant(AB) Ramuntxo Cambong(EAJ), eta Naroa Gorostiaga	Getxo Antzokian	7an	20:00
Bidaia Taldearen Kontzertua Caroline Phillips eta Mixel Ducau (Errobi taldeko kantari ohia)	Getxo Antzokian	7an	21:00
Ipar Euskal Herriko produktuen Azoka	San Nikolas Plazan	8an	10:00 21:00
Dantza-Piko Ikusi eta Ikasi	San Nikolas	8an	12:00
Iparraldeko Pintxo dastatzea Antton Amilibia	San Nikolas	8an	14:30etatik aurrera
Anje Duhalderen Kontzertua	San Nikolas	8an	17:00
Niko Etxarten Kontzertua	San Nikolas	8an	19:00

* Ekintza guztiak doan txotxongiloak izan ezik (2€). San Nikolasen karpas egongo da.



Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Olatu handia Portu Zaharrean. Asier Menteak.
- 6. PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Gorka Vázquez.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Urduliz.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Barrikako alkatea 21. Gainerako herriak 22.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Algortako azoka. Asier Menteak.
- 28. ARGAZKIA. Justuria Larabasterran. Aitor Galbarriartu.
- 30. BERBETAN. Estibaliz Ruiz de Azua. Unai Brea.
- 32. FOTOGRAFIA. Olatu handiak Uribe Kostan. Willy Uribe.

KULTURA ETA AISIA

- 38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Koldo Serra, Urtzi Iglesias
- 39. MUSIKA. Traveling Brothers taldea. Diskoen erreseinak.
- 40. LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Xabier Montoia.
- 41. KOMUNIKAZIOA. EH lau haizeetara telebista saioa.
- 42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- 43. ELKARRIZKETA. Uxue Barkos.

EUSKARAZ

- 44. AKABUKO PUNTE. Getxoko toponimia. Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoen "Gure berbakere" zutabea.
- 46. URIBERTSOAN BARRENA. ALBEkumeak eta gainera Joanes Igeregiren bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Algortako Salsidu taberna.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. San Inazio eskola. Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Edurne Ormazabal. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Willy Uribe (Meñakotz)



30 Estibaliz Ruiz de Azua



12 Eneko Sanz



43 Uxue Barkos



24 Algortako azoka



38 Koldo Serra



54 Edurne Ormazabal

BIZKAIA
irratia
barri - barri

FREKUENTZIA

102,6 F.M.Bilbo 96,7 F.M.Markina 92,5 F.M.Ondarroa 98,1 F.M.Lekeitio 96,7 F.M.Aramaio

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantz Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buerxosa, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkarteak
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiaetzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko parteidea da

 Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du	 TOPAGUNEa
 GETXOKO UDALA Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du	
 Leioako Udala Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuiko dirulaguntza jaso du	 BERANGOKO UDALA Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du
 Erandioko Udala Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du	 Erandioko Berbots Euskaraz elkarlaren laguntza jasotzen du
 Bizkaiko Foru Aldundia Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du	
 Fundación Grupo Eroski KONTSUMITZAILEAREN TITULUA	 Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Itsasoa, bizibide eta kirol

Itsasoa dakartsugu, irakurle, UK honetako azalean eta barruan, gure eskualde maiteari ere itsasoak apaindura eta izakera ematen dion moduan. Egia da, bestalde, ez dela gure herrien bizimodua itsasora begira antolatu, euskal kostaldeko beste herri batzuen erara. Ez da gure eskualdea arrantzale petoa izan, are gutxiago itsasontzi-egile edo itsas merkatarri handi. Baina itsasoak eduki du beti bere lekua uribekostarren bizimoduan; horren adibide ona dituzue pasa den mendeko erdi aldera arte, familia askok, zakuak lepoan eta astoak, idiak eta are behiak garraio-lagun, hondartzetara egiten zituzten bidaiak, dela olatuek ekarritako *koka* eta *zaborre* (Labe Garaietako erregaiei hondakinak) batu eta neguan erregai moduan erabiltzeko, dela kostako haitzak jota hondoratzen ziren itsasontzietako merkantzia eta abarren hondakinak biltzeko (Ramiro Pinilla Getxoko bizilagunaren “Las Ciegas Hormigas” eleberriak halako jarduera batean dauka abiapuntua)... Sasoi gogorrak ziren haiek, ezin zen albora utzi erabiltzeko modukoa zen ezer ere. Bestalde, itsasoa beste mota bateko ogibide izan dutenak ere sortu dira gure eskualdean: arrantzaleak ere izan ditugu, eta marinelak, pilotuak, kanpitainak,... Gure herri batzuk -Plentzia esaterako- itsasgizon trebeen sorteri izan dira.


Gaur egun, ordea, uribekostarrok ez ohi ditugu itsasoko urak lan eta ogi iturri gisan hartzen. Gaur egungo bizimoduan, lehen lan eta neke sortzaile ziren inguruak denborapasa eta kirol leku bihurtu ditugu, eta hala, gure aitime-amamentzat erregai eta salgai ekarle ziren olatuak, gaur egun, menperatu beharreko zaldi basatiak dira Uribe Kostako hainbat gazteren begietara. Surfaren garaian gaude, eta gure eskualdean ez dira falta olatu gainerako zaldun trebeak, *tamañeroak* surfzaleen berbakeran. Lekua egin diegu horiei UK honetako orrietan, bai eta gure herrietakoak diren edo gure herrietako bizitzan ezagun diren beste zenbait gizon-emakumeri. Hemen doazkizue, den-denak, euren berri izanda gozatuko duzuelakoan.

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero erosi > berria



PORTU ZAHARRA, 2004KO APRILA

Itsaso Gorria zeharkatzen / Zer izan daiteke atseginago udaberriko arrasti baten itsaso ondorik olatuen zurrumurua lagun dugula ostraratxoa egitea baino... Baina udaberria gure herrian ez da dena eguzki eta dena lore, ondo dakigu denok, eta ez dauka eguraldiak asko gaiztoru beharrik gure kantauri maitea hortzak erakusten hasteke. Hala ere, itsasoaren hortzak eta danbadak gorabehera, henen diuzue lau paseozale ausart, ginean daukatenari jaramon asko egin barik, isasaldeko giroan (eta ia uretan) ederto murgilduta . / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

A ze gurutzea gurea!

Ez dakit halako gaietan nork aholkatzen duen Getxoko alkatea, beharbada bera nahikoa da inoren laguntza barik halako erabakiak hartzeko, baina kontua da nolabaiteko obsesioa daukala hondartzekin.

Duela pare bat urte Azkorri edo Gorrondatxe hondartzan larrugorrian egotea debekatzeko erabakiarekin harritu gintuen. Orain, berriz, igogailua jarri nahi ei du Maria Kristina paraketik Ereagara jaisteko. Nik uste nuen bazegoela bide nahikorik bertara iristeko (Portu Zaharretik, Urkijo-Basotik, Maria Kristinatik, Txomintxuko aldatatik, Arriluzetik), baina antza denez ez.

Badakit batek baino gehiagok zer esango didan, igogailua adinean aurrera doazenengan, elbarritasunen bat edota mugitzeko arazoak dituztenengan pentsatuta egingo dela, horiek ere hondartza bazterrean paseoan ibiltzeko eskubidea daukabela. Oso ondo, eskatzen hasita nik ere eskatuko dut zer edo zer horientzat, errepide zabal eta txukuna egin diezagutela Arrabako landeraino eta hortik Gorbeiako tontorrera funikularra, guztiok ez baitugu hondartza maite. A ze gurutzea gurea. ⁴

Iritzia

Nolakoak dira gaur egungo gazteak? Galdera hau egin diogu Alain Albizu soziologoari. Behean, bere gogoeta.

Gazteak eta metaforak

Helduen munduan bizi gara, 35 eta 60 urte bitartekoek diseinatu eta araututako munduan, alegia. Helduek “kolektibotzat” dauzkate heltzarora iritsi ez direnak zein heltzarotik harago dauden guzti-guztiak: 35 urtetik beherakoak “gazteak” dira; 60 urtetik gorakoak, berriz, zaharrak edo, politagoa dena, “hirugarren adinekoak”. Ohar gaitezen, bada, inor gutxiri

«Bizi estiloei begiratuta gazteek antz handiagoa dute mila irudi eta kolore desberdinez osatutako *colagge* batekin kolore bakarreko irudi batekin baino»

nahikoa arrazoi 35 urtetik beherakoak, batetik, eta 60 urtetik gorakoak, bestetik, talde homogeneoetan sartzeko. Berdinak al dira zahar guztiak ordea? Berdinak gazte guztiak? Hurrengo lerroetan ikusiko dugunez, gaur egun inoiz baino ozenago erantzun behar da ezetz. Errepara diezaiegun gazteei, esaterako.

José I. Ruiz Olabuenaga soziologoak gazteak ikusteko molde desberdinak azaltzeko baliatutako metaforak oso egokiak dira azaldu nahi genukeena

azaltzeko. Bere ustean, hiru metaforaren bidez azal liteeke helduen munduak, gure munduak, gazteak ikusteko dituen modu desberdinak. Lehenik, metafora *botanikoa* dugu, honi jarraiki gazteak udaberriaren oparotasunarekin alderatzen dira, lore-hautsez betetako haizeekin eta loratzeko gogoarekin, alegia. Bigarrenik, metafora *meteorologikoa*, gaztea ekaintza, erauntsia ala enbata bezain managaitza irudikatzen duena. Azkenik, metafora *mekanikoa* dago. Honen arabera, helduen gizartea, aldian-aldian, pieza berriak behar dituen makina bat da (kotxe bat esaterako): gazteak, noski, ordezko pieza hauek dira.

Hiru metaforen oinarri-oinarrian gazteak talde konpaktu eta homogeneoa direlako uste oker baino okerragoa dago. Emantzipatzeko adina horrenbeste luzatu den honetan, gaztaroa sekula baino luzeagoa da. Honetaz gain, gaztaroa luzatzearekin batera beste fenonemo interesgarri bat gertatu da: emantzipatzera bide desberdinetatik iritsi daitekeela. Gure gurasoak bide zuzen batetik iristen ziren emantzipatzera: ikasketak-lana-ekzkontza. Nolabait esateko, eredu lineal bati jarraitzen zioten. Gaur egun, berriz, ereduaren linealitatea eten egin da: *saiakera-errakuntza* ereduda nagusi. Joaquim Casals-en aburuz, ondoz ondoko hurbilketa baten ondorioz iristen dira gaurko gazteak emantzipaziora: pausu bi aurrera eta bat atzera, beste hiru aurrera eta beste horrenbeste atzera...Hau da, ikasketak-lana-ikasketak-lagunekin bizi-bikotearekin bizi-lana-ikasketak... Ondorioz, bizi estiloei begiratuta gazteek antz handiagoa dute mila irudi eta kolore desberdinez osatutako *colagge* batekin kolore bakarreko irudi batekin baino.

Hau ulertzeko goiko metaforen egile berak proposatutako metafora ederra proposatzen dizuet nik ere: gazteak etorkinekin alderatzen dituena alegia. Gazteak helduen mundura pateretan datozen etorkin kulturalak dira, paterak kostaldera bezalaxe, gazteak beraiena ez den kultura batera hurbiltzen ari dira, helduek, beldurrez, hondartzatik begiratzen dieten bitartean. Olabuenagaren ekarpenik handiena hauxe da: hondartzatik nola hurbiltzen eta nola sufritzen duten begira gelditu beharrean, gugaino igotzen lagundu behako geniekeela adieraztea, arrotza zaizkien kultura eta arau horietara ahalbait arinen egokitzeko, beren ahaleginetan bertatik bertara laguntzeko eta helduen kodeak beraiengan sortarazten duen arrefusa edota atxekimendua hobeto ulertzeko. ⁴

Alain Albizu (sozilogoa)



Iraganez doa denbora* beti / URDULIZ

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Serantes su botaka



Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez



Goian, liburuaren egileak aurkezpen egunean. Gainerako irudiak aurkezpenaren ondoren egin zen luntxean hartu genituen.



kronika > Getxoko leku izenen gaineko liburuaren aurkezpena

Hiru urteko lanaren emaitza aurkeztu zen herritarren aurrean apirilaren 24an Algortako Kultur Etxean. Lan hori Getxoko 1.259 leku izen edo toponimo biltzen dituen liburua da (*Getxoko leku izenak*). Mikel Gorrotxategi, Sofia Otxoa de Eribe eta Amagoia Aurrekoetxea izan dira lan honen egile gogotsuak, eta Getxoko Euskara Zerbitzua argitaratzailea. Denona den ondare toponimikoa jasotzea premiazkoa zen, leku izen asko galzorian zeuden eta. Liburua amaituta dago, orain herritarroi dagokigu irakurtzea.

Goiko irudiek erakusten duten moduan, getxoztar ugari hurreratu zen ekitaldira, liburuaren nondik norakoak lehen eskutik ezagutzera. Giroa aparta. m

AIXERROTA BHI

23 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK


DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

begizorrotz > Algortako ordezkaritza Madrilen



Argazkian, Borja Gandiaga Madrilén zabaldu duen Algorta tabernaren sarreran

Aste Santuko oporrak Madrilén eman dituen aldizkari honetako kazetari batek ezusteko atsegina hartu zuen hango kale batean paseatzen zihoala: bere herri maitearen izen bera daukan taberna batekin egin zuen topo: Taberna Algorta. Aste Santuan bertan zabaldu berri du negozio hori Borja Gandiaga getxoztarrak Madrileko La Latina auzoan (Cava Baja, 26). Txotisaren hiriburuan euskal pintxo gozoak dastatzeko leku apropos hau Algortako argazki zaharrez apainduta dago (Portu Zaharrekoak, Algortako trainerua,...) eta horiek jatorriaren erakusle gutxi baziren, kanpoaldean Getxoko armarria ipini du Borja Gandiagak. Orain dela hamalau urte joan zen Borja Madril aldera bizitzera, lan kontuengatik, baina ez du, antza, jaioterria ahaztu nahi. m

kale izendegia > Kristobal Kolon



Jatorri ezezaguneko nabigatzaile hau (Genoan jaio ei zen 1451n), 14 urte bete zituenetik itsasoari lotuta egon zen. Mendebaletik abiatuta Ekialdera ailegatu gura zuen, baina gorriak ikusi behar izan zituen hori lortzeko. Portugalgo erregeari laguntza eskatu zion alferri; Errege Katolikoek lagunduko ziotelakoan, Espainiara joan zen, baina Errekonkistan buru-belarri sartuta zeudenez gero, ez zioten kasu arrastorik egin. Genoa, Venezia, Frantzia eta Ingalaterrara ere joan zen bere proiektua aurrera ateratzeko; azkenean, lortu egin zuen helburua Gaztelako errege-erreginen laguntzari esker. 1492tik 1502ra bitartean Kolonek lau bidaia egin zituen Amerika kontinentera. Oraindik gaur egun ere bere gorpuzkiak non dauden inork ez daki, baina guk Neguri aldean topatu dugu Kristobal Kolon izeneko kale bat behintzat. m

AIBOA HORTZ KLINIKA

Prezio bereziak!
Deitu!

- 94 491 46 75
- 619 844 202

etorri eta ikusi!!

MORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda

350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Udaltzaingoaren memoria

Getxoko Udaltzaingoak **2003an esku harturiko jardueren** berri eman du udalak: **442 trafiko istripu** izan ziren, **79.500 trafiko isun** baino gehigo, eta **2.000tik gora droga-dosi** atzeman zituen

Udaltzaingoak 2003. urtean egindako jardueren memoriaren berri eman du orain dela gutxi Getxoko udalak. Deigarriak diren datuen artean daude, besteak beste, trafikoagaz lotutako istripuen kopuruak behera egin zuela iaz (442 izan ziren); ibilgailuei jarritako isunak 79.500 baino gehiago izan zirela, eta beraz kopurua %15 hazi dela (gutxi gora behera orduro 9 isun jarri zituzten udaltzainek); aurreko urtean baino 50 atxilotze gehiago egin zirela (guztira 120 atxilotze); eta 2.000 haxix dosi atzeman zituztela eta 50 bat kokainarenak.

Getxoko udaltzainen iazko jarduerak batzen dituen memoria aurkeztu du orain dela gutxi udalak. Asko dira bertan agertzen diren zenbatekoak, baina zenbatekoak ez dira ezer esangura barik. Kopuru horietatik garrantzitsuentzat ondokoak hartu dituzte udaletik: trafiko istripuen kopurua jaitsi egin da, trafikoari lotutako isunen zenbatekoak gora egin du nahiko, eta lapurreta txikien kopurua, ez asko, baina hazi egin da.

79.517 trafiko isun
Getxoko udaltzainek 79.517 isun jarri zituzten iaz ibilgailuakaz lotutako gorabeheretan. Orduro 9 bat isun jarri beharko lirateke batez-beste urtean kopuru hori bete ahal izateko. 2002ko datuakaz alderatuta, trafiko isunen kopuruak %15 egin du gora. Isun horien guztien ia %79 TAO arloko arau-hausteengatik izan dira.



TAOgaz lotutako 62.624 isun jarri ziren

Bestetik, daturik pozgarriena trafiko istripuen ingurukoa da: iaz 442 trafiko istripu egon ziren, 2002an baino 86 gutxiago. Trafiko ezbeharrak lekutu ziren guneak ohikoak dira: Mimenagan, Makaleta eta Algortan etorbidean, Gobelaurren eta Telletxen.

«120 atxiloketa egin ziren, garabiak 1.425 ibilgailu eraman zituen, ostutako 14 ibilgailu berreskuratu ziren»

Bestelako datuen artean, lapurreta txikien salaketek gora egin dutela apur bat: 2003an 955 salaketa aurkeztu ziren. Atxilotzeak berriz, 120 egin zituzten Getxoko udaltzainek; 2002an, oster, 71 izan ziren. Lapurtutako 14 ibilgailu berreskuratu zituzten eta 1.425 ibilgailu eraman ziren.

tuen garabiak. Amaitzeko, legez kanpoko drogen inguruko datuak ere batzen ditu Udaltzaingoaren 2003ko memoriak: 2.000 haxix dosi atzeman zituzten, eta beste 50 bat kokainarenak.

2003KO DATU BATZUK

- 442 trafiko istripu gertatu ziren.
- 79.517 trafiko isun jarri ziren.
- 62.624 trafiko isun TAOgaz lotutakoak.
- 2.000 haxix dosi, eta 50 kokaina atzeman ziren.
- 955 salaketa jarri ziren lapurreta txikiengatik.
- 120 atxiloketa egin ziren.
- 14 ostutako ibilgailu berreskuratu ziren.
- 1.425 ibilgailu eraman zituen garabiak.

Getxoko ESAIT taldea

Herriko kirol eta kultura taldeak erakartzea da euren asmoa **Euskal Seleksioen** alde lan egiteko



Getxoko ESAITeko kide batzuk, taldearen aurkezpenean

Apirilaren erdialdetik martxan da Getxoko ESAIT taldea. ESAIT (Euskal Seleksioen Aldeko Iritzi Taldea) bertako kirol seleksioek Euskal Herriaren izenean lehiatu daitezten lanean diharduen plataforma da. Bizkaian hiru herrik daukate plataforma honen azpialde finkoa, eta Getxon sortu berri dena laugarrena litzateke.

Zortzi dira gutxi gora-behera Getxoko ESAITeko partaideak, baina kopuru horrek laster gora egitea espero dute. Lehenengo eginbeharretakoa dute, hain zuzen, herriko eta inguruetakoko kirol eta

kultur elkarteakaz harremanean jartzea, eta Euskal Seleksioen alde lan egitera erakartzea.

Aurkezpene eta Herri-Lasterketa
Apirilaren 16an aurkeztu zen taldea, Algortan, 35 bat pertsonaren aurrean. Ez zen aurpegi ezagunik egon, inguruko kirolari profesionalek zereginak ei zituzten-eta, baina bertaratutakoaren artean ez zen lan egiteko gogorik falta. Lasterketa bat antolatu zuten taldearen sorrera ospatzeko, eta eguraldia lagun izan ez bazuten ere, 100 korrikalari batu ziren.

GOBELAKO UDAL KIROLDEGI BERRIAK URTE BAT INGURU BARRU ZABALDUKO DITU ATEAK

Gobelako Udal Kiroldegi berriak 2005eko martxo inguruan zabalduko ditu ateak. 14 milioi bat euroko kostua dauka proiektu hau gauzatzeak. Eguzki energia erabiltzeko tresneriaz hornitu dute eta irisgarritasunaren inguruko araudia betetzen du. Kiroldegiko atal garrantzitsuenetakoa futbol zelaia da, 1.250 ikuslerentzako tokia izango du eta uztailerako amaituta egotea espero dute. Bestetik, Fadura pilotalekuan azken hilabeteotan egiten diren zaharberritze lanak amaitu dira: horiek 3 milioi euroko aurrekontua izan dute. Bost pilotaleku prestatu dituzte, bi zesta-puntarako egokituta daude eta beste bat trinketerako.

Fadurako pilotalekuaren eraikina



GETXOKO LANGABETUEN ERDIA BAINO GEHIAGO EMAKUME GAZTEAK DIRA

Getxoko langabezia tasa Euskal Autonomia Erkidegokoa baino apur bat altuagoa da, eta %8,4an dago. Bestela esanda, 3.100 pertsona baino gehiago daude langabezian udalerrian. Lanbakoen generoari erreparatzen badiogu, berritasun gutxi: emakumezkoak dira langabetuen %55. Izan ere, emakume gazteak dira, 25 eta 44 urte bitartekoak. Eta ikasketak edota prestakuntza dela eta, ikasketadunak dira, eta areago, goi mailako ikasketak dituzten emakumeak.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Agirreren omenez

Apirilaren 14an izendatu zuten era ofizialean Jose Antonio Agirre Getxoko Seme Kutuna, orduan eman zien-eta udalak izendapen horren erakusgarri den domina lehen Lehendakariaren oi-nordekoei. Ekitaldian izan ziren, beste-ak beste, Agirreren senitarteakoak, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, EBBko bu-ru Josu Jon Imaz, Getxoko alkate Iñaki Zarraoa eta Bizkaiko Aldun Nagusi Jose Luis Bilbao. ^m

Argazkian, besteak beste: Agirreren oinordekoak, Ibarretxe Lehendakaria eta Iñaki Zarraoa alkatea



EUSKAL JAIA OSPATUKO DA MAIATZAREN 13AN

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak Euskal Jaia prestatuko du maiatzaren 13rako, eguena. Andra Mari kiroldegian egingo da, eta goizeko 09:30ean hasiko da ikuskizuna. Ikasturtean zehar egindako eta ikasitako jardueren ikuskizuna eskainiko dute udalerriko ikastetxeek. Euskal Dantzak, Euskal Kantak eta Bertsolaritza lantegietan ikasitakoak oholtzaratuko dituzte ikasleek. Abestiak, dantzak eta bertsoak izango dira nagusi Euskal Jaia-aren egunean: urte osoko ahalegina ikuskizun bihurtuko da, beraz.



Eneko Sanz > Barnetegia saioko irabazlea
“Ideia polita da, baina hobeto egin ahal zuten”



Algortan, bere jaioterrian, egin genuen hitzordua Eneko Sanz Barnetegia-ko irabazleagaz

Eneko Sanz algotarrak irabazi du ETB-1eko Barnetegia saioa, botoen %53,2 lortuta. Buenos Aires-en eta New York-en aste banako egonaldia izango du sari, euskara gaitasuna indartu izanaz gain, jakina. 24 urte ditu Enekok eta EGA prestatzen jarraitzen du Euskaltegian.

—Zergatik aurkeztu zinen?
—Ni berez ez nintzen aurkeztu. Hasi baino aste bat lehenago, dirudienez, lehiakide batek ezetz esan zuen. Produktorearen, zuzendariaren edo ez dakit noren lagun batek, berez nire laguna denak, galdetu zidan: “zuk beharbada parte hartu nahi duzu?” Esperientzia polita izan zite-keela iruditu zitzaidan eta gainera euskarari bultzakada bat eman nahi nion. Aste batean izan zen dena, azkenean, asko pentsatu gabe...
—Zelan ikusi duzu programa: euskara bult-zatzeko da, baina reality-show bat ere?
—Nire ustez ez dute oso ondo planifikatu. Idea berez, oso ona da. Beste herrialdeetan igual ez, baina Euskal Herrian euskara da Euskal Herriari izena ematen diona, arima. Orduan, ideia polita da, baina hobeto egin ahal zuten. Azken finean, reality-show bat ere bada. Bi alde horiek batzea zaila da, baina nik uste dut hori izan dela arazoa eta akatsa. Adibidez, 14 pertsona badaude, ezinezkoa da

eskuko mikro batekin dena ondo hartzea. Haiek ere esaten zuten ezin dela horrelako saio bat hain gutxirekin egin. Alde horretatik, ikus-ten da ez zeukatela oso argi reality-show bat egiten ala barnetegia erakutsi. Baliabide tekni-ko gutxi eduki dute, ez dakit zein izan den aurrekontua ez ezer, baina...
—Zer eskaini dizu Barnetegia?
—Asko. Euskara ikastea, edo berreskuratzea: berez nik txikia nintzela ikastolan ikasi nuen. Gero, taldekideak, hori izan da gehien harritu nauena, ustekabe polita. Pentsatzen nuena bai-no aberasgarriagoa izan da.

“Nik uste dut euskara aurrera doala; Katalunian bezala, hemen, erabiltzeko ohitura hori lortu dezakegula»

—Euskal Herriko 14 lehiakideetatik 3 Uribe Kostakoak. Eta hiruretako batek irabazi saioa.
—Horrekin txantxak egin genituen. Sartu nintzenean iruditzen zitzaidan gure aldean ez zela euskaraz askorik hitz egiten, nahiz eta jende asko euskalduna izan. Baina orain, jendeak eza- gutzen nauenean, ausartzen dira nirekin euska-raz mintzatzeraz. Nik uste dut euskara aurrera doala, Katalunian bezala, hemen ere erabiltzera ohitu gaitezkeela bai eta euskaraz bizitzera. ^m

Iparra Galdu Gabe jardunaldiak Iparraldera hurreratzeko aukera itzela Algortan



Koldo Amestoy ipuin kontalariak saioa egingo du maiatzaren 5ean Urgull kaleko egoitzan

Dagoeneko Iparraldea, Euskal Herriko Iparraldea, ezagutzen ez duenak aukera itzela dauka egunotan Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa hobeto ezagutzeko. Izan ere, Euskal Kultur Erakundeak eta Getxoko udaleko Euskara Zerbitzuak “Iparra galdu gabe” jardu-naldiak antolatu dituzte, eta maiatzaren 8ra arte hainbat jarduera prestatu dituzte (horien guztien berri 2. orrian zehaztu dugu).

Iparraldeko musikari ezagunen doinu eta kantuak, dantzarien oin arinak, jaki eta

elikagaien zapore goxoa, idazleen esanak eta idatziak, politikarien berbaldiak, azoka, era-kusketak eta hainbat gozagai eta dastagai izango da maiatzaren 8ra arte Algortan.
Bertara hurreratuko denari nahiz hur-biltzeko aukerarik izan ez duenari Iparraldea datorkio ate joka: Frantziar Estatuaren zu-zentzapean dagoen lurraldea eta han bizi diren euskaldunak ezagutzeko aukera aurre-auurrera dakarkigute jardunaldiok. Horta-kotz, ez dezagun iparra gal. ^m

MAIATZAREN 8TIK 24RA VII. JARDUNALDI BOTANIKOAK GETXON

Basozaleak elkartek jardunaldi botanikoak antolatu ditu maiatzaren 8tik 24ra Getxon. “*Pagoa eta bere bizilekua*” lelopean, ibilaldiak, erakusketak eta hitzaldiak prestatu dituzte. Maiatzaren 8an Getxoko inguruetatik txangoa egingo dute, landare eta arbol laginen erakusketa jarriko dute San Nikolas plazan hurrengo egunean, eta beste erakusketa iraunkor bat egongo da hilaren 10tik 24ra Alday Kulturunean. Hitzaldiak, ostera, maiatzaren 10, 12, 17 eta 19an izango dira, guztiak pagoaren nondik norakoen inguruan, eta hauek ere Alday Kulturunean 19:30ean. Hala ere, hitzaldi, erakusketa edota ibilaldiari buruzko informazio gehiago gura duenak Basozaleak elkarte-ko egoitzara jotzea du, Alday Kulturunea, Karidade kalea 1 (Algorta).

ALGORTAKO IÑAKI DEUNA JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETA MARTXAN DA

Algortako Iñaki Deuna jaietako Batzordeak zabaldu du festetako kartelen lehiaketan parte hartzeko epea: ekainaren 4 artekoa izango da. Hona hemen parte hartzeko bete beharrekoak: kartelak 50x70 zentimetroko neurria eduki behar du, gaia libre, baina esaldi hauek halabeharrez agertu beharko dute: “Algortako Iñaki Deunaren jaiak 2004”, “uztailaren 29tik abuztuaren 1era”, eta “jaietan ere euskaraz!”. Kartelak Algortako Kultur Etxean (Villamonte) aurkeztu beharko dira, goitizen bategaz sinatuta eta egilearen benetako izen-abizenak eta telefono zenbakia gutunazal batean gordeta. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

RENAULT **ocasión**

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT BILBO BERRI
Bizkerre/k. z/g. - ALGORTA
Tel.: 94 430 68 81
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO
Tel.: 94 448 39 00

Euskara zerbitzua lanean

Josu Esnaola buru duela, Leioako **Euskara** Zerbitzuak erabilera **bultzatu** eta ia-euskaldunak euskaldun bihurtzea du **helburu**

Josu Esnaola elgoibartarrak Algorta du bizileku eta Leioa lanleku. Leioako euskaltegia euskara irakasten jardun ondoren, azken urteotan udaletxeko Euskara Zerbitzuan dabil, herrian euskararen erabilera sustatzen.

Estatistikek diotenaren arabera, herriko egoera itxaropentsu ikusteko arrazoirik bada-go. Izan ere, leioako biztanleetatik %21 dira euskaldun, eta %26 ia euskaldun. Hala ere, Josu Esnaolak berak dioenez, “ezagutzaren aldetik herriko biztanleriaren erdia euskalduna edo ia euskalduna izan arren, tamalez, eguneroko bizimoduan eta kalean ez da estatistikek diotena islatzen”. Horregatik, bi dira

«Tamalez, eguneroko bizimoduan eta kalean ez da estatistikek diotena islatzen»

Euskara Zerbitzuaren helburu nagusiak: batetik, euskara dakitenen artean erabilera bultzatzea, eta bestetik, ia euskaldunak euskaldun bihurtzea.

Lehenik eta behin, etorkizunari begira, haur eta gazteon artean sustatu nahi dute euskararen erabilera. Euskara Zerbitzuaren arduradunak dioenez, “eskolaren bidez euskaldundu dira gaur egungo gaztetxoak, baina gero, eskolatik kanpo ez dira euskaraz mintzatzen”. Aisialdi jarduerak, hain zuzen, eskolatik kanpo euskaraz mintzatzeko helburuaz



Josu Esnaola Leioako euskara teknikaria

antolatuko dira.

Horretaz gain, eta haurren ingurua euskalduntzeko, euskara ikasteko dirulaguntzak jasoko dituzte hamabi urtera arteko umeak dauzkaten gurasoek, bai eta umeekin lan egiten dutenek (eskoletako jantokikoak, autobusekoak, haurtzaindegietako langileak, ...). Ia euskaldunentzat edo euskara ikasten dabilzanentzat, ikasitakoa erabiltzeko aukera izan dezaten mintza-taldeak sortu dira euskaltegian. Josuk dioenez, “euskara ikasten ibili baina inguruan hizkuntza erabiltzeko aukerarik ez daukatenei zuzendua”. m

DATUAK

Azken urte hauetan euskaldunen kopuruak, apur bat bada ere, gora egin du Leioan. Ia euskaldunen kopurua, aldiz, askoz gehiago igo da.

	1996	2001
Euskaldunak	%21,24	%21,76
Ia Euskaldunak	%26,91	%30,02
Erdaldunak	%51,83	%48,22

Ekimenak

• Ipuin kontaketa

Hileko lehen larunbatetan umeei zuzendutako ekitaldiekin jarraituz, maiatzaren 1ean ipuin kontalari saioa izango da, Rosa Mª Martinezek eskainia, arratsaldeko 5etan, Leioako Musika Eskolako Auditoriumean (sarrera doan).

• **Asteburuak eta egonaldiak euskaraz** 1992tik 1998ra bitartean jaiotako ume euskaldunei asteburuak eta egonaldiak euskaraz pasatzeko aukera emateko sortu zen Txilinbuelak. Hurrengo egonaldia, maiatzaren 7tik 9ra, ORIOko aterpetxean egingo dute. 30 euro ordaindu beharko dira eta diru-laguntza sistema ere badago. Izenemateak apirilaren 28tik 30era (10:00-13:00) (Telefona: 94 400 80 44).

• Literatur Jarduerak hitzaldia

Iban Zaldua: “Umorea euskal literaturan: irakurraldi bat”. Maiatzaren 12an, arratsaldeko 8etan, Leioako Mastitxu Udal Euskaltegian.

Kuko, Truko eta Bolenwaider > Pailazoak

Barre algarak



Argazkian, Kuko, Truko eta Bolenwaider

Kuko, Truko eta Bolenwaider-ek pailazo munduaren barnean proposamen berria eskaintzen dute: “pailazo ezagunenak batez ere abeslariak dira; guk, ordea, antzezteari garrantzi handiago ematen diogu”. Txikienen aurpegi alaiak eta irribarreak bilatzen dituzte, baina aldi berean, gurasoen irribarra ere atera ohi dute. Imanol, Alfonso eta Gorka ditugu pailazo moztorren azpiko aktoreak, eta antzestokiaren atzeko lanaz arduratzen den Iñakirekin batera Adur antzerki taldea osatzen dute. Denak Getxoko Antzerki Eskolan ikasiak, “eskola-ko antzerkiak egiteko biltzen ginen; gure artean harreman berezia sortu zenez, taldea sortzea enabaki genuen”.

Aurretik nagusientzako antzerki ikuski-

zun “serio” ugari egin dituzte. Hurrei zuzenduriko zenbait lanekin probak egin ondoren konturatu ziren esparru horrek zuen arrakastaz. “Orain lau urte Kuko, Truko eta Bolenwaider izena jarri eta, nolabait, pailazo lanetan espezializatu zen taldea”.

Historian Zehar

Hamabost urte daramatzate Hego Euskal Herriko oholtzetara igotzen. Maiatzaren 26an “Historian Zehar”, haurrentzat sortu duten hirugarren ikuskizuna, plazara-tuko dute Iruñean. Lan honetan “historian atzera egingo dugu aro batetik bestera bidaiaituz. Nondik gatozen eta nora goazen ikusiko dugu”. m

T: 616 079 075 / www.adurteatro.com

ETXETIKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -
Lacofris, s.L. SERVITEC
¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
¥ 3 HILABETKO GARANTIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI
LIBURUDENDA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



amesti 7^{SL}

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



Lagunarte atsegina Kanpomartxon

Adin guztietako jende mordoa bildu zen Lutxanan Erandioko euskararen jaia ospatzeko

Kantuan, dantzan, bertsoan, jolasean, jan-edanean, solasean... bakoitza bere erara. Bazkaltzeko orduan ere hainbat aukera: bertan egindako paellak, etxetik eroandako indabak, antolatzaileek egindako sukalkia, norberak prestatutako bokatak, txosnan erositako taloa eta txorizoa... Giro aparta sortu zen, eguraldia ere lagun zela.



“Burua entrena daiteke”


Carlos Ramírez kirol psikologo erandioztarrak entrenamendu psikologi-koak duen garrantzia azaltzen du, batez ere goi mailako kirolarientzat

Hanketako giharrak, besoetako gi-harrak, azken batean, gorputz osoko gi-harrak indartu beharra dute kirolariek, baita burukoa ere. Zeren garun indartsua ez daukan kirolaria nekez hel baitaiteke goi-mailara. Halaxe dio, behinik behin, Carlos Ramírez kirol psikologo erandioz-tarrak: *“Burua entrena daiteke”*.

Gazte garaian txirrindularia izan zen, eta ez tropelaren azkenengo postuetan makal eta ezinean ibiltzen diren horietarikoa. Errepidean afizionatu mailara irit-si zen, baina bere benetako dohainak belodromoan erakutsi zituen, 1992an Espainiako Txapelketako urrezko domi-na irabazita. Euskadin, berriz, lau urtez izan zen txapeldun, 1991etik 1994ra bi-tartean.

«Askotan, psikologiak eragiten du gaitasunez eta mailaz antzeko diren bi kirolariren arteko aldea»

Carlos Ramírez ez da, ez, ezer egin barik egoteko gauza, eta bizikleta gainean ibiltzeaz gain, Psikologia Ikasketari ekin zion, Deustuko Unibertsitatean. Berton hasi zen barneratzen buruko giharrak, garunak, duen indarra. Alabaina, ikasita-koari nahiko iritzi ez, eta jakinmina ase-tu ahal izateko, maletak egin eta urruna-go joan zen: Edinburgoko Unibertsita-



Argazkian, Carlos Ramírez kirol psikologoa

tean bi urtez izan zen diplomatura lortu arte. Geroago Kanadara jo zuen, Onta-rioko Unibertsitatean masterra egitera, beste bi urtez. Eta, azkenik, New York-eko Ellis Institutu ospetsuan izan zen, hiru hilabetez praktikak egiten.

Orain urtebete inguru itzuli zenez geroztik, hainbat aukera izan ditu kanpo-an ikasitakoa etxean gauzatzeko: dagoe-neko mesede egin diete kirol psikologo honen aholkuek Kantabriako golf jokala-riei, Saunier Duval talde profesionaleko ziklistei, Pista Euskal Federazioaren babe-sean dauden hainbat txirrindulariri, bai eta Lutxanako arraunlariei.

Ohiko entrenamenduetan alde fisi-koari garrantzi handia ematen zaio, baina, bere esanetan, alde psikikoa ere landuz gero, kirolariak sei hilabete baino gutxiagoko epean nabari ditzake lehen-dabiziko emaitzak . Eta zer entrena daite-ke, esaterako? *“Bada, zelan motibatu, ze-lan egin aurre arazoei, zelan lasaitu, zelan ikusi norberak bere burua egoera ezberdi-netan... Dena lagungarria da gero jardue-ra fisikoa hobetzeko”*, eransten du Carlos Ramírezek.

Esan beharrik ez da entrenamendu psikikoa kirolari ez direnentzat ere izan daitekeela onuragarria. m

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea esan

ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel.& Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 24, behea ezkerre
ALGORTA

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarmeriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
D E I T U !

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTENA
www.basartena.com



URDULIZ
Teléfono: 946 761 128




Taberna Bern
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

krimea



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA

JATEKO



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[sopelana]

Jaiak antolatzen hasita

Jaien egitaraua prestatzen hasi da udala



Gaztetxoak Sopelanako jaietan

Jaietan betebeharrekoen berri eman du Sopelanako udalak: ordutegia, egin beharreko eskaerak, epeak... Udaleko Kultura, Turismo, Kirol eta Gazteria sailak Sopelanako jaiak antolatzeari ekin dio, eta egitaraua prestatzekoan herriko talde edo elkarteek parte har dezaketela adierazi dute. Herritarrek telefonoz edo mezu elektronikoz bidali ditzakete udalera dauzkaten proposamenak eta iradokizunak. Egitarauaren prestakuntzagaz batera, jaietarako arauak ere plazaratu dituzte: tabernek goizaldeko 05:30ean itxi behar-

ko dute eta kanpoaldean barrarik jarri gura izanez gero, maiatzaren 28a baino lehen egin beharko diote eskaera udaletxeari. Bestetik, legez eraturako elkarteek txozna ipini nahi badute, izena eman beharko dute udaletxean data berori baino lehen ere.

Herriko elkarte eta talde kulturalak jaietan parte hartzeko proposamenak osatzen dabilta, eta udalak jarritako betebeharrak aztertzen. m

Harremanetarako: 94 406 55 04 /19
kultura@sopelana.net

“GAZTE PLANA” PRESTATZEN DABIL UDALA

Herriko gazteen beharrian, arazo eta eskaerak zeintzuk diren jakin ahal izateko ikerketa bat egiten dabil Sopelanako udala. 14 eta 35 urte bitarteko gazte sopoloztarren artean inkesta bat eginez eman diote hasiera “Gazte Plana” deritzon ikerketari. Inkesta honetatik ondorioztatutako datuek erakutsiko ei dute herriko gazteek aldarrikatzen dutena, dituzten eskaerak, ikusten dituzten gabeziak eta abar. Argi dago, beraz: orain da eskaerak eta kexak azaltzeko ordua.

ABADESOLOKO KIROLDEGIA HANDITZEKO BIDEAN

Apiril hasieran bete zuten Abadesoloko igerilekuak eta kiroldegia urte bete, eta herriko bizilagunek emaniko harrera ona ikusita, eskaintza handiagotzeko proposamena jaso du udalak. Kirol eraikinaren eskaintzaz arduratzen den Servicio S. L.-k goiko pisuan lanak egitea proposatu du, bertan beste gimnasio bi egin ahal izateko. Gaur egun 8.319 bazkide dauzkate Abadesoloko Kirol instalazioek, orain dela urte bateko kopurua ia halako bi.

[sopelana]

Xabier Saitua > argazkilaria

“Zuri beltzekoak nahiago ditut, digitalak baino”



Xabier Saitua argazkilaria bere dendako estudioan

Lanbidea eta zaletasuna, biak uztartu ditu Xabier Saituak. 22 urte daramatza herritarrak erretratatzeko, baina argazkilaritzari gaztetik ekin zion. Sopelanan zabaldu zuen orain dela 22 urte argazki denda, eta bertan dauka estudioa. Dendako bertako argazkiez gain, ezkontzetako eta industriako erreportajeak ere egiten ditu. Hasieran prentsako argazkilaria izan zen, kiroletakoa batez ere. Garai hartako bizi-penak emozioz gogoratzen ditu, eta orduko argazkiren bat goraipatzeko eskatuta, Julian Retegiri edota Julian Gorosperi egindakoak dakartza gogora. Ez omen zuen arrisku egoerarik ikusten: “*gaztea nintzen orduan, txirindularien argazkiak ateratzeko kotxeetatik eskegita joaten ginen, bizia galtzeko zorian... eta frontoian pelo-*

takadak jasotzetik hur egoten ginen”.

Herrian egindako argazkietatik bat aukeratzeko eskatuta, atzera egin du denboran; azkenengo elurteak ez, baina orain urte asko jausitako beste elurte batzuk aukeratu ditu: “*hondartza elurtuta ikustea polita izan zen, irudi bitxia: harea eta har-kaitzak zuri-zuri, gainera hondartzara heldu zen lehenengoa izan nintzen, ez zegoen oinatzik ez ezer*”. Lehen planoak diren argazkiak ditu gogokoen, eta gaueko argakiak; argi naturalez ataratakoak benetan ziragarriak iruditzen zaizkio. Nahiago ditu zuri-beltzeko argazkiak, norbanakoak atara eta eskuz errebelatutakoak, oraingo argazki digitalak baino gehiago. Hala ere, teknologia digitalak aukera izugarriak dituela azpimarratzen du. m



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

LAIK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Ituribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

NEKAZARITZA ETA
ARTISAUTZA AZOKA
MAIATZAREN 2AN

Nekazaritza eta artisautza azoka egingo da Berangon maiatzaren 2an. Baserriko produktak, orain gure soroetan fresko dauden elikabarazkiak, frutak, gaztak, eztiak... eta eskuz egiko lanabesak egongo dira ikusgai eta salgai. Bestetik, Euskal Pastelaren Euskadiko Txapelketa egingo da Berangon. Beraz, ortuko produktuez gain bestelako goxoak ere izango dira eskura dastatzeko, eta Euskadiko txapela eskuratzeko aukera egonda, kalitatea ere ona izan beharko. Simon Otxandategi dantza taldeak antolatzen du azoka eta Elexalden egingo da.


HERRI URRATSERAKO
IRTEERA PRESTATU DU
KULTUR ETXEAK

Berangoko Kultur Etxeak irteera antolatu du Iparraldeko ikastolen bestara. Maiatzaren 9an Senperen ospatuko den 21. Herri Urrataserako txangoa goizeko 09:00etan irteno da Berangoetako Kultur Etxetik. Izena emateko epea maiatzaren 6a arte egongo da zabalik. Berangon erroldatuta daudenek 8 euro ordaindu beharko dute Senpererako autobusa, eta beste herrietakoek, ostera, 10 euro. Izen-ematea Berangoetan edota hurrengo telefono zenbakian egin daiteke: 94 668 21 43.

Aurtengo kartelaren zati bat



Kultur jardunaldien hitzordua
hamaika ekitaldi maiatzean zehar



Oskorrik maiatzaren 8an joko du

VI. Kultur jardunaldiak egingo dira maiatzean zehar Berangon. Hilaren 7an hasi eta 30era arte hamaika ekitaldi antolatu ditu Kultur Etxeak: musika, kirola, dantza, antzerkia, erakusketak... Maiatzaren 7an Betizu gaztetxoentzako kontzertuak emango die hasiera Kultur jardunaldiei.

Hurrengo egunean, krosa eta txirringularitza lasterketa herrian zehar, eta iluntzean Oskorriren kontzertua. Hilaren 9ko eguerdian Simon Otxandategi dantza taldeko txikienek dantza erakustaldia emango dute futbol zelaian, eta arratsaldean futbol partida eta Txirlora taldearen antzerki ikuskizuna izango dira. Esku-

pelota partidak maiatzaren 14ko arratsaldean egingo dira. Umeen antzerkia 16an, eta Torrekolanda taldearen sokatira eta trontxa erakustaldia maiatzaren 19an, eguaztena. Barikuan Sopelanako abesbatzak kantatuko du Berangoko elizan.

Erakusketa 24tik 30era

Ikasleen margolanez, fosilez eta mineralez osatutako erakusketa 24tik 30era egongo da ikusgai. Maiatzaren 27an ballet-aren inguruko bideo emanaldia izango da. 28an, berriz, ikasleen bertsolaritza eta karate erakustaldia, eta areto dantzen ikuskizuna. Amaitzeko, 29an umeentzako parkea eta txokolada antolatuko dira. m

Jose Maria Ezpeleta > Barrikako alkatea

“Etxe barrik ein behar doguz, ta frontoia, ordun egongo da Barrike ederto”

Jose Maria Ezpeleta barrikarrak 21 urte daramatza alkatetzan. 72 urte ditu, eta 8 urtez Uribe Kostako Mankomunitateko presidente izan zen. Alkate denetik udalerrian ez du egin gura ez zuen ezer, hala aitortu digu behintzat. Aurrez aurre dituen egitekoen artean daude: udalak babestutako etxebizitzak eta kirolertarako frontoia.

—Zer egin gurako zenuke udalerrian, edorzegaitik egin ezin duzuna.

—Gauza asko. Bizileku munizipalak, eingo doguz, baia gatz da, normak errebisa behar direz, horregaitik gauz PTP horregaz (Lurralde Plan Partziala) atzera ta aurrera. Ta gero, frontoi bat, baia, izingo da *polivalente*, bakizu balenzesto, balonmano... gauza guztik eitteko. Proiektu hori erdi eitte deku, ez dakit noz eingo dan, ze diru asko behar da ta guk ez deku hainbeste...

—Zein da zure Barrika perfektuaren irudia?

—Bibiendak ein behar direz, ta frontoia, hori zona deportiba, ordun izingo da bastante perfektu. Ongoz direz gauza asko gihau, baia... Perfekto hori izingo da, bizilekuk gazteentzako eta frontoia... Gero, saneamentuana, ondiñokarren hasi barik deku, lehengo ein behar dogu *red primaria*, ta gero *red secundaria*.

—Kultur Etxe bat egitea ez duzue pentsatu?

—Kultur Etxea ta frontoia dana do batera. Erabilten gabiltzez biblioteka bat hor asilon ondón. Badeku beste txikitxu bat, baia... Gero izengo da frontoin lekun, hemetik 3-4 urten, leku beten dana.

—Zelan bizi da euskara Barrikan?

—Hor gabiltzez Mankomunitatean aurre-rantzera eroateko. Baia, bastante gatz da euske-



Argazkian, Jose Mari Ezpeleta

ra aurrera atatea. Oin, bakizu, gazte danak dauz ikisten. Modelo An ez dau inor Barriken, bueno batzuk ongo direz kolegio pribautan, ostera, danak modelo D ala B. Hemen berba ez asko. Jente erdeldune sartu da asko. Galdu ein da apur bet, gure artan

«Ekologistak hasi ziren zona paisajistika dala-ta, baia kalifikata dau etxeak eitteko»

bere, orain baino gihau eiten gendun lehen. —Baserri giroan bizi izan da Barrika, orain txalet asko egin dira.

—Hori da. Txalet asko ein direz. Lehen baserrian, bakizu, 20 persona ta danak euskaraz, orain baserrian bat edo bi lotzen da. Lehengo modun ez da orain Barrike.

—Barrikabason txaletak eta etxeak eraikitzen dabilta, horren kontra egon da jendea.

—Hori aurrerantza do. Ekologistak hasi ziren zona paisajista dala-ta, baia hori kalifikata dau

txaletak-ta eitteko. Kalifikata dau. Ekologistak ibili ziren hor... Ekologistak leku guztitan ibiltzen direz... Nik gure izingo neuen jakin ia ekologistak badirez ni baino gihau, edo zer direzen! Arbolan batek enbarazu eitten badau, bota eitten da ta beste 3-4 sartuko direz ostabere. Arbolan bat eskibatu ein ahal balitz, ordun bai. Barrikabason goien dauz arte asko, baie hori holan lotzen da. Beste lekuen pinuk on ziren, ta orain sasik, sasik bakarrik. Paisajistikoa? Hor eztau ezebez, eztau bidek, paseok ein barik dauz... hori urbaniza ein behar da apur bet, ezpabere zetarako guruzu zona paisajistika hor. —Galdera gaiztotxoa da, baina interesa ei dauka, zenbateko soldata daukazu?

—Ni ez nau liberata. Nik dekot 1.400 euro hilen. Orain jubilata nau, hemetik martxa eitten dodanen, nire jubilaziñoagaz bakarrik, autonomon jubilaziñoa dekot. Bizkaian ongo direz 2-3 liberata ez gauzenak. Igoal danok baino beharra gehiago ein, ze zortzi urtez izen naz Mankomunitateko presidente. Bastante gogorra izin zan, nire beharra atendidu barik, diru gitxi. Beti nau protestan horregaitik, sartuten dot makina ordu goizen, eguerdien, arratsalden Beti negarrez. Gastuek boltsatik, ta horrek erre eitten dau eh! Hasikeran, alkate ezer kobra barik igoa 6 urte, gero 70.000 pezeta. Eztekot segururik, besteak dauz liberata, horrek dekez Seguridad Social ta 14 page ta nik 12 bakarrik. m

BARRIKA

- **Biztanleak:** 1.300 inguru
- **Herriaren azalera:** 7,8 km koadro
- **Udala:** 9 zinegotzi. EAJ 7, PSOE 1, PP 1,
- **Euskaldunak eta ia euskaldunak:** 780 (%60)
- **Erdaldunak:** 520 (%40)

cianoplan s.a.

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnok: 944 64 90 87
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

PYRENE JAIALDIRAKO
IRTEERA ANTOLATU DU
PLENTZIAKO KULTUR
ETXEAK

Uztailaren 9, 10 eta 11n Piriniotan egingo den Pyrene jaialdirako irteera antolatu du Plentziako Kultur Etxeak. Urtero *El Mundo de los Pirineos* aldizkariak antolatzen duen jaialdia La Seu d’Urgell-en egingo da. Kulturak eta naturak bat egiten duten bilgunea izaten da urtero jaialdia: musika, antzerkia, Pirinioakaz lotutako gaien IV. Liburu eta Disko Azoka, mendi ibilbideak, artisautza azokak... Aurtengo jaialdian, adibidez, Ojos de Brujo, Jabier Muguruza, Aïsha edo Kepa Junkera bezalako abeslari eta taldeak egongo dira. Izena emateko epea maiatzaren 1etik 24ra egongo da zabalik, eta bidaide kopurua mugatua izango da.

Harremanetarako: 94 677 55 41

BARRIKA PIRAGUA
TALDEAK JARDUNALDIAK
ANTOLATU DITU

Barrika Piragua taldeak Ateak Zabalik jardunaldiak prestatu ditu maiatzaren 9rako. Uger egiten jakitea da jardunaldiotan parte hartzeko baldintza bakarra. Maiatzaren 9an zenbait motatako piraguak ikusi eta erabiltzeko aukera izango du klubera hurbiltzen denak, San Telmo aurrean, 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00-18:00.

PLENTZIA

Errotabarri belar artifizialeko zelai berria prest



Plentziako Errotabarri futbol zelai berria

Plentzia F.C.-ko taldeek orain dela 3 hila-bete arte hareazko futbol zelaian jokatzeko zutuzten partiduetan. Orain belar-artifizialeko zelai berria dute: *Errotabarri*. Zelaia dagoen lekuan errota bat ei zegoelako eman dio udalak izen hori. Hala ere, Plentzia Klubeko bigarren lehendakari Vicente Merinok azaldu digunez, Errotazahar deitu beharko litza-teke: *“Errota lehen egon zan hor; orduen, erro-*

ta zaharra izen beharko zan”, hala uste du berak. 300 bat pertsonarentzako harmaila estaliak ditu. Zelai handiaz gain beste zelai txiki bi ere egin dituzte. Urduliz, Sopelana, Barrika eta Gorlizeko zelaietan jokatu dituzte partidak plentziarrek zelai berriko lanak amaitu bitartean, eta zelaiaren kostua, udalak, BBK-k eta Aldundiak ordaindu dute: 450.760 euro. ^m

Maiatzak 01 - 16

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: ukaldizkaria@telefonica.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxe: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Iparraldea erakusketa.** Urgulleko erakustaretoa. Maiatzaren 8ra arte.

► **Antzezaleak elkarteko kideak erakusketa.** Algortako erakustaretoa. Maiatzaren 4tik 15era.

► **Artaza Institutua erakusketa.** Erromoko aretoa. Apirilak 27tik maiatzaren 11ra.

► **Arrate Sarria-ren lanak.** Erromoko aretoa. Maiatzaren 13tik 27ra.

URDULIZ

► **Akuarelak erakusketa.** Javier Lopez Lesakaren lanak. Urdulizeko Kultur Etxea. Maiatzaren 1etik 15era.

BERANGO

► **Herri Kirolak erakusketa.** Jose Ignacio Lobo-ren eskutik. Berangoko Kultur Etxea. Maiatzaren 3tik 16ra.

GORLIZ

► **Argazki eta Diapositiba Lehiaketako lanen erakusketa.** Erakusgelan. Maiatzaren 8tik 15era

ANTZERKIA

GETXO

► **Un Cubano en la corte del Rey Juan.** Alexis Valdes-en eskutik. Getxo Antzokia. Maiatzaren 1ean, zapatua. 20:30ean. Sarrerak: 12/9 euro.

► **Las Estrellas tambien brillan en otoño.** Getxoko antzerki Eskolaren V. Emakume Bideak zikloaren barruan, Alborada taldearen eskutik. Maiatzaren 8a, zapatua. 19:00. Sarrerak: 3 euro

ZINEMA

GETXO

► **Torremolinos 73.** Zine-kluba. Getxo Antzokian maiatzaren 5ean, eguaztena, eta Areetako Gran Cineman maiatzaren 6ean, eguena, 20:00. Sarrerak: 2,60 euro
► **Glup.** Haur zinea euskaraz. Getxo Antzokian. Maiatzak 9, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrerak: 1,90 euro
► **Posesion.** Zine-kluba. Getxo



► Musika
Anje Duhalde eta Niko Etxart Getxon

Iparraldea gabe jardunaldien barruan, Getxoko udaleko Euskara Zerbitzuak Anje Duhalde eta Niko Etxart-en kontzertuak antolatu ditu. Maiatzaren 8an izango dira kontzertuok San Nikolas plazan (Algortan). Anje Duhalde arituko da lehenengo, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, eta besteak beste, beste azken laneko “George Brassensen kantari” kantuak eskaimiko ditu. Gero, 19:00ak inguruan Niko Etxart edukiko dugu Hapa-Hapa taldeagaz batera. Talde honen eta Iparraldeko kantarien kontzertu biak doan dira.

• **Non:** San Nikolas Plaza (Algorta) • **Noiz:** Maiatzak 8, zapatua

Antzokian, maiatzak 12, eguaztena. Areetako Gran Cineman, maiatzak 13, eguena. Biak 20:00etan.
► **La Flor del Mal, eta 07:35 de la mañana (laburra).** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Maiatzak 14, barikua. 22:00.
► **Hermano oso.** Haur zinea. Getxo Antzokian. Maiatzak 16, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

PLENTZIA

► **Buscando a Nemo.** Goñi Portala. Maiatzak 8, zapatua. 17:00
► **The Rookie.** Goñi Portala. Maiatzak 15, zapatua. 18:00.

MUSIKA

GETXO

► **Leioako San Juan Bautista eta EHUko Abesbatzen kontzertua.** Aurreibilaldiaren egitarauaren barruan. Leioako Musika Eskolako Auditorium-ea. Maiatzak 6, eguena. 20:00.
► **Jean Bordaxar eta bere taldea.** Zuberoako kantak “a capella”. *Iparraldea gabe* jardunaldien barruan, Getxo Antzokian. Maiatzak 16, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

galduta gabe jardunaldien barruan. Algortako Urgull kaleko Areto Nagusia. Maiatzak 6, eguena. 20:00. Sarrera doan.

► **Bidaia.** *Iparraldea gabe* jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Maiatzak 7, eguaztena. 21:00. Sarrera doan.

BESTEAK

GETXO

► **DANTZA.** *Iparraldea gabe* jardunaldien barruan. Ezpela eta Angeluarrak dantza taldeen erakustaldia. Algortako Geltoki plazan. Maiatzak 2, domeka. 12:00. Sarrera doan

► **DANTZA.** EHUko Dantza taldearen eskutik “Enborra” dantza garaikideko ikuskizuna. Aurreibilaldiaren barruko ekitaldia. Getxo Antzokia. Maiatzak 3, astelehena. 19:30.

► **TXONTXONGILOAK.** *Iparraldea gabe* jardunaldien barruan. Baionako Azika taldearen eskutik. Getxo Antzokia. Maiatzak 2, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 2 euro.

► **HITZALDIA.** *Iparraldea gabe* jardunaldien barruan. Ur Apaletegi Ildirin-en literatura hitzaldia. Algortako Urgull kaleko Areto Nagusian. Maiatzak 4, martitzena. 20:00.

► **Ipuinak eta musika.** *Iparraldea gabe* jardunaldien barruan. Koldo Amestoy ipuin kontalariaren eta Pantxix Bidart gitarra jole eta abeslariaren *Zubiak* emanaldia. Algortako Urgull kaleko Areto Nagusian. Maiatzak 5, eguaztena. 20:00.

► **Mahai-ingurua.** *Iparraldea gabe* jardunaldien barruan. *Ipar Euskal Herria, orain eta bihar.* Ipar Euskal Herriko alderdi politikoaren ordezkariakaz. Getxo Antzokia. Maiatzak 7, barikua. 20:00.

GORLIZ

► **Mountain Bike Eskolen arteko Lasterketa.** Maiatzak 16, domeka. 10:00. Eta Open Euskadi Rallye 11:00.

[albuma]




Algortako azoka

Ia guztiak daude, hau da, Algortako azokan beharrean dabiltzan herriko ia merkatari guztiak. Ez dute lan makala, izan ere, inguruan perretxikoen moduan ireki diren merkatalgune erraldoiei aurre egin behar diete. Goliath-en kontra euren armak zeintzuk dira? Kalitatezko jeneroa eta bezeroak jasotzen duen tratu beroa. Bestetik, esan behar da herriko kalegiroak asko zor diela azokako merkatariari. Orrialdeotako erretratuon bitartez gure omenalditxo apala egin nahi diegu behargin hauei.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Justuria

Aitor Galbarriartu

Hauxe duzue Aitor Galbarriartu argazkilari sopeloztarrak helarazi digun irudia, “yústuri” ederra harrapatuta duda barik: kontuz, justuri berbak ez dauka zerikusirik justuakaz edo justiziagaz, etimozalaren batek beharbada pentsatu duen moduan. Gure eskualdeko berba da justuri, beste paraje batzuetan oinaztarri, oinaztura edo tximista esaten diotenari deitzekoa. Ezer munduan bat-batean eta zorrotz badator, hori da hain zuzen ere justuria, eta Aitor laguna ere ez zen ezaugarri horietatik oso aparte ibili, Larrabasterran orain urte batzuetako udaberrian jausi zen lantzakada itsugarriaren irudia harrapatu eta guri ekartzeko.

Estibaliz Ruiz de Azuaren aurpegia 2001az geroztik dugu ezagun. Urte hartantxe hasi zen kazetari gasteiztar hau *Políticamente incorrecto* eztabaida-saioa gidatzen, eta gerotxoago eguerdietako *Teleberri* aurkezten, eta hortxe dirau. Pantailan ikusita, edonork esango luke Estibaliz Ruiz de Azuak berez daukala kameragaz harreman ona; bere lanaren zatirik handiena, hala ere, irratian egin du: ETBn sartu baino lehenago, Gasteizko SER irratian jardun zuen esatari, ia hamar urtez. Ondoko berbaldian hamaika kontu jorratu ditugu: kazetariaren objektibotasuna, kazetarien erantzukizuna, telebista-kateen arteko lehia... Zuhur agertu da Ruiz de Azua, gai potoloetan sartu aurretik erantzuna ondo pentsatzeko pare bat segundo hartuz. Izan ere, ezinbestekoa da oreka milaka belarri norberak dioenari adi-adi daudenan.

Estibaliz Ruiz de Azua

Kazetariaren zintzotasuna

Testua: **Jon Arrue**

—Urte ugari daroazu kazetari, baina ohi denez, telebistan zure aurpegia agertzeak eman dizu ospea...

—Irratia eta telebista desberdinak dira, argi dago. Bada “ahots hori ezagutzen dut” esaten didanik ere... ni neu ez naiz gai inor ahotsagatik ezagutzeko! Telebis-tak irudia ematen du, baina ospea? Ez dakit. Ezagunagoa izango naiz behar-bada, baina egia esateko ez naiz gehiegi narbamentzen kaletik noanean, ez dakit ez ote den izango telebistan ematen dugun irudia benetan dugunaren oso desberdina delako.

—Teleberria aurkezteko, zelanbaiteko irudia behar da, estetika jakin bat?

—Benetan, sekula ez nukeen pentsatuko oso “telebistako” irudia neukanik. Irudi egokia edukitea oso ederra izatea, 36ko talla edukitea, altua, errubioa eta abar izatea bada, bistan da nik ez dudala betetzen...

—Ez diot erakargarria izan behar denik, baina bai zelanbaiteko irudia eman...

—Irudia baino, kameraren aurrean ondo ematen duen zeozer edukitea da. Ederra izan barik, kamerak maita zaitzala. Badaude horrelako aurkezle asko.

—Eta zuk, zelako harremana daukazu kameragaz?

—Elkar ezagutuz joan gara, urteotan. Aitortzen dut errespetu apur bat ematen duela, baina tira. Oraingo harremana “badakit hor zaudena” pentsatzean datza, “badakit elkarregaz lan egin behar duguna, eta ondo konponduko garena azkene-rako”. Ez nau gehiegi kezkatzen gaiak.

“Nik, edonork bezala, iritzia daukat, baina hori ez da saioan igerri behar”

—*Teleberria* edo *Políticamente incorrecto* aurkezten zaudela, ahaztu egiten zaizu nor daukazun aurrean? Nori egiten diozu berba?

—Irratian lan egiten nuenean baneukan norbait aurrean: teknikaria. Azkenean, haren aurpegiari begiratzen nion. Ez niotuen entzuleak irudikatzen, hau da, ez dut uste irratian inork pentsatzen duenik mila, bi mila, hiru mila... lagun norberak dioena entzuten daudela. Hurbiletik berba egiten duzu, ez talde bategaz, baizik eta pertsona bakoitzagaz, banan-banan. Telebistan, zentzu horretan, antzeko zeozer

gertatzen dela uste dut. Kamerari berba egiten diozu eta pertsona bati begiratuko zenion bezala begiratzen diozu.

—*Políticamente incorrecto* eztabaida-saioa aurkezten duzu. Badakigu eztabai-datzen? Askotan, zurea bezalako saioetan, errespetu falta handia igertzen da... —Uste dut oro har zabalduta dagoen gaitza dela. Edozein bazkalondotan, ezta-

baida hasi eta berehala hasten gara denak batean berbetan. Ez ditugu besteen berbak entzun gura, gure iritzia aldaraz diezaguketelako. Gu, saioan, nork berea esplikatu dezan ahalegintzen gara, aurrean jarrita dagoena esandakoaz ez dela ados egongo jakin arren. Nik uste dut gure eztabaidetan errespetu handia egoten dela. Ez da ika-mika larririk egon, ez eta eraso pertsonal askorik; eta egon direnean eten egin ditut, jakina.

—Bereziki sutsua izan den eztabaidaren bat gogoratzen duzu?

—Bai. Baina eztabaidaren gaia baino,



“Azken urteotan, kamera eta biok elkar ezagutuz joan gara”, dio Estibaliz Ruiz de Azuak

pertsona jakinak dira eztabaida beroagoa izatea eragiten dutenak. Eta ez hori bakarrik; muga gainditzeak ere bai, irainera iristeak...

—Eztabaidetan bataren edo bestearen alde egitea aurpegiratu dizute inoiz?

—Ni moderatzailea naiz, eta nire betebeharra saioan parte hartzen duten guztiei euren esateko denbora nahikoa ematea da, nire iritzia inola ere igertzen ez dela. Nik ere, edonork bezala, iritzia daukat eta! Baina batzuetan bestetan baino objektiboagoa izatea lortzen da, hori argi dago. Dena dela, saioa ematen hasi zene-tik, behin baino ez didate leporatu objektibo-ez izatea. Eliza katolikoaren ordezkari batek egin zuen, hain zuen, gay eta lesbianek umeak hartzeko aukeraz ezta-

baidatzen genbiltzala berak “jende hori ez da normala” esan eta nik halakorik ez nuela onartuko esan eta gero. —Objektibotasunaren ildotik jarraituz, hortxe dago Urdaci gaia...

“M-11ko erasoen albistea beste edozein bezala ematen da”

—Bai, baina ez dagokit niri beraren lana epaitzea. Ez berarena ez beste inorena, bide batez esateko. Kaleratu den informazioa daukat nik, datu objektiboak: epaitegi batek zigor bat ezarri duela manipulatazeagatik, alegia.

—Eguen gauaz ematen da *Políticamente incorrecto*; azken boladan, egun txarra

da hori lehiatzeko, *Los Serrano* eta enpara-uak direla eta ez direla...

—Hala da, baina gu telebista publiko batean gabiltza eta horrelako saioak eskaini behar dizkiegu ikusleei. Zuk aipatu duzun serie horrek ikusle asko bereganatzen ditu, %50 edo, baina guk ez daukagu audientzia txarra. Badakigu zelako saioa daukagun, eta ezin gara kexatu.

—Martxoaren 11ko eraso, hauteskundeak... A zelako egunak kazetari batentzat, ezta?

—Zaila izan zen, bai. Baina ez da beste edozein albisteren desberdin, ez pentsa. Kontua egia esatea da, daukazun informazio guztia ematea eta zerbaitegaz seguru ez bazaude, hala adieraztea. Egun haietan berba bakoitza neurtzen genuela gogoratzen dut, oso zintzoak izaten ahalegindu ginela, ikusleei iruzurrik ez egiteko. Baina beste edozein alditan bezala, e?

—Halakoetan ez da ardura berezia sentitzen, orduan?

—Ez nioke ardura esango. Ez da beste edozein egunaren desberdin, benetan.

—Gaurko mundu zoro honetan, erantzukizun berezia daukagu kazetariok?

—Nire ustez, norbanako guztiek daukate erantzukizuna dagokien arloan, euren lantokian, euren bizilekuan... Baina, argi eta garbi, besteei gertatzen dena esateko ardura daukan kazetari batek behar-beharrezkoa du koherente eta zintzoa izatea, gezurrik ez esatea, audientziagaz begiru-

nez jokatzeko eta aldi guztietan dakien guztia esatea. Erantzukizuna? Ez dakit. Kazetaritzan jarduteko modu asko dago eta, niretzat, balio bera daukate herri txiki bateko informazioaz arduratzen denaren lanak eta goi-mailako politikaren berri ematen duenarenak. Gertatzen dena esan behar da, beste barik. ^m



Olatu handiak gurean

Lantzean behin, batez ere neguan, olatu izugarriak dakartza itsasoak. Gurean surfzaleak asko badira ere, esku biren hatzamarrekin zenbatu daitezke olatu erraldoi hauen gainean irristatzera ausartzen direnak.

Surf hizkeran “tamañeroak” deitzen zaie. Gure eskualdean badauzkagu batzuk: Peio Etxebarria, Fernandeztarrak (Txema, Natxo, Jaime, Alfonso eta Asis), Luis eta David Bustamante, Aritza Saratxaga edota Pepe Tony Gainza. Gazteagoen artean aipagarriak dira Guillermo Barandiaran eta Asier Lejarreta.

Orrialdeotara Willy Uribe surf argazkailari profesional getxoztarrak eginiko hainbat irudi eder ekarri ditugu, honen guztiaren erakusgarri.

Argazkiak: **Willy Uribe**

Surf irudi geihago: www.willyuribe.com







KEPA ACERO (ABASOTA, 2003KO MARTXOA)



CHARLY BORCHES (MEÑAKOTZ, 2002KO URTARRILA)

I.E.S. artaza - romo BHI

CURSO 2004-05 IKASTURTEA

Bachilleratos L.O.G.S.E. (modelos A y D)

- Bachillerato de Artes
- Bachillerato de Ciencias de la Naturaleza y la Salud
- Bachillerato de Humanidades y Ciencias Sociales

- **Preinscripciones:** del 3 al 7 de mayo
- **Matriculación:** del 1 al 7 de julio

HSAOL Batxilergoak (A eta D ereduak)

- Arte Batxilergoa
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa

- **Aurreinskripzioak:** maiatzaren 3tik 7ra
- **Matrikulazioa:** uztailaren 1etik 7ra



Amaia, 28. 48940 LEIOA
 Tfno. 94 480 10 05 / 94 480 11 56
 Fax. 94 431 60 59
 E-mail: 015111aa@hezkuntza.net
 Web: artazaromo.net

Instituto E. de Formación Profesional Superior



Goi-Mailako Lanbide-Heziketako B. Institutua

BATXILERGOAK

(A eta D ereduetan)

- Teknologikoa
- Natur eta Osasun Zientziak

Aurreinskripzioak: Maiatzaren 3-tik 7-ra

D.B.H. (A eta D ereduetan)

HEZIKETA ZIKLOAK

Aurreinskripzioak:
 Ekainaren 1-etik 9-ra

Erdi mailakoak: Kontsumorako ekipto elektronikoak, Mekanizazioa, Ibilgailuen elektromekanika, Karrozeria eta Erizaintzako zaintza osagarriak

Goi mailakoak: Produktu elektronikoaren garapena, Mekanizazio bidezko produkzioa eta Osasun-dokumentazioa

Bizkerre Kalea z/g. Tfnoa: 94 406 90 00; Faxes: 94 406 90 01; E-mail: 014301aa@hezkuntza.net; www.fadurainstitutua.org

48991 GETXO-BIZKAIA



zineeskola

Oskar Fernández

Oinarrizko egitura

Orrialde hauetan aipatu dugu inoiz zinema eta literatura-ren artean dagoen antzekotasuna. Adierazpide handi bi hauen arteko parekotasunari helduko diogu hemen, batez ere barruko egiturari dagokiola. Zinema literaturara baino ehunka urte beranduago sortu zen. Beraz, istorioak kontatzeko hartu zuen eredia literaturatik zetorren. Baina, aurrera joan aurretik, ikus dezagun gainbegirada batez eleberria nola osatua den: hitzek, sintaxiak elkarturik, esaldiak osatzen dituzte. Hauek elkarturik paragrafoak sortaraziko dituzte. Paragrafoek istorioak ematen duten logikari eta koherentziari jarraituz atalak osatuko dituzte eta era honetan eleberriak idazten dira. Aipatutako eredu hau jarraituz zinezuzendariak filmak “idatziko” dituzte: istorioa planoka banatu eta berauek grabatzen hasten dira. Plano horiek esaldiak dira, eta muntaketaren bidez planoak elkartzen direnean eszenak sortuko dira. Eszena paragrafotzat har dezakegu. Filmak duen barruko egituraren bidez eszenak elkartzen direnean sekuentziak sortzen dira, filmetako atalak bilakatuz. Literaturak duen adierazpen-unitate minimoa hitza da, eta honen bidez nahi duena adierazi ahal du. Zinema arloan honen baliokidea planoa da, baina zazpigarren arteak bere berezitasunak ditu eta planoak hitza adieraz dezake, edo esaldia, paragrafo osoa, eszena, sekuentzia, baita film osoa ere. Azken kasu hau, jakina, oso gutxitan gertatu da zinema-ren historian. Eredu hau jarraituz, Alfred Hitchcock zinemagile handiak plano bakarrean grabatu zuen “La sogá” film osoa. Beste zinemagile handi batek, Orson Welles-ek, “Sed de mal” filmaren hasieran plano baten bidez azaldu zuen lehenengo sekuentzia osoa. Gaur eredu hauek, normalean, ez dira erabiltzen, eta plano asko eta asko erabiltzen dira filma osatzeko. 4

Europako onena

Koldo Serra algortarraren film labur bat Europako onena aukeratu dute

Méliès d’or The European Fantastic Film Festivals Federationek Europako behar fantastiko onenei ematen dien saria da. Hori da, hain zuzen ere, film laburren arloan, Koldo Serra getxoztarrak *El tren de la bruja* beharragatik lortu zuena. Aurretik, Sitgesko zinemaldian, epaimahaiaren saria eta zilarrezko Méliès eskuratu zituen, baina apirilaren 17an Amsterdam Fantastic Films Festival-en jaso zuen hau kontinente zaharreko saririk garrantzitsuena da.

Nahiz eta sariak loteriatzat hartzen dituen, Koldo Serra ohartzen da hauek ematen duten ospeaz, eta hau bere lehenengo filme luzea egin ahal izateko beharrezkoa duen dirua lortzeko lagungarri izatea espero du.

«El tren de la bruja thriller psikologikoarekin irabazi du saria Serrak»

El tren de la bruja thriller psikologikoa da. Bertan, gizon batek saio batean parte hartzeko aurkeztzen du bere burua; beldurraren aurrean gizakien jokaera aztertzea helburu duen esperimentuan, hain zuzen ere. Gela ilun batean dagoen aulki batetik



Argazkian, Koldo Serra

ez altxatzea lortuz gero, dirutza handia jasoko du. Baina posible da inor beldurtzea, aurretik dena gezurra dela jakinda ere? Gizonak, lar berandu ikusiko du baietz, posible dela.

Filmea Koldok berak aurkeztu zuen aspaldian Uribe Kostan. Hala ere, oraindik ikusi ez duenak badu aukerarik; izan ere, datorren hilean Bilboko zinemaldian emango dute. Halaber, Canal+ek filma erosi du eta egunotan telebistan eskaintzen ari da. m



Argazkian, taldeko kideak

Traveling Brothers taldearen hard-blues doinuak zuzeneko lehen diskoan

Nondik dator izena: Talde leioaztarrean bi anaia dabilta boskotearen sostengu legez, horregatik brothers; eta traveling-arena: “*beti batetik bestera gabiltzalako eta atzerrian ere jo gura dugulako*”, azaldu zigun Aitorrek. **Noiz hasi ziren:** 1998an sortu zuten Eneko eta Aitor anaiek taldea, gero ondoratu zitzaizkien Gorka (bateria) eta Jon (ahotsa). Orduan Tala-drina deitzen ziren. **Taldeko kideak:** Aitor (gitarra), Eneko (baxua), Jon (ahotsa), Isi (bateria) eta Ander (teklista). **Gustukoa dute:** Hard-bluesa jorratzen dute, blues oso gitarrerora, indartsua. **Eginiko diskoak:** *Live in Basque Country* da Ondarruko Kafe-Antzokian zuzenean grabatu duten diskoa, hilaren amaierara-

ko kalean egongo dena. 12 abestiz osatzen da, bospasei blues klasikoren bertsioak dira, denak ingelesez bakarra izan ezik: B. B. King-en kanta baten euskarazko bertsioa hain zuzen. **Besteak beste, jo dute:** Bilboko eta Uribe Kostako taberna eta aretoetan. Paul Lamb-en kontzertu batean ere jo zuten. Uztaillean Cazorlako Blues Jaialdian jardungo dute. **Euskal musikaren egoera:** “*Merkatua nabiko homogeneous da hemen, eta muga horietatik kanpo bazabiltza, askoz zailagoa da. Europa berrin gaude, badakigu hemen disko gutxi salduko ditugula, baina gus-tuko duguna egiten jarraituko dugu*”. m

Harremanetarako: 607 42 33 18

diskoak

Scissior Sisters
Scissior Sisters
Polydor



New Yorkeko hiru gayk eta hetero bik osatzen dute mundu osoko dantzalekuetan modan dagoen taldea. Hitz lot-sagabeak eta ausartak, glam garaiko itxura eta era askotako ahotsak (guztiak altuak, baina ñabardura ugariakaz). Boskote honen musika antzerki hutsa da, ikusteko ikuskizuna. Hamaika abestietatik *Laura* eta *Comfortably Numb* nabarmentzen dira.

Me and Mr. Johnson
Eric Clapton
Reprise



Bizirik dirauen munduko gitarra-jolerik onenak (Jimi Hendrix orain dela 33 urte hil zen), omenaldi hau egin dio bere maisuetako bati: Robert Johnson, Mississippi-ko del-tako blues-aren erregea. Bere ondare xumea –29 kantu besterik ez, 1936-37an grabatutakoak- gaur egungo rockaren eta blues-aren oinarriak dira. Eta gainera, bere arima deabruari saldu ei zion.

Home made
Jon Urrutia
Gaztelupeko Hotsak



Errebal Jazz azpizigiluaren hirugarren emaitza dugu honokoa. Piano-jole bilbotarrak etxean grabatutako diskoa kaleratu berri du (hain zuzen, hortik dator izenburua). Guztira, bederatzi pieza ditugu entzungai. Betiko piano-jole fina izateari uko egin barik eta bere sustraiak mantenduz, Urrutia askoz erritmikoagoa eta latinoagoa azaltzen zaigu lan honetan.

Diskoa >

Afrika, entzun!



Aurreko UKn eman genizuen berria, Afrika Bibang-ek disko berria plazaratuko duela. Soul, jazz... musika beltzaz jantziriko

diskoa, euskaraz abestuta. Diskoaren aurkezpena maiatzaren 5ean egingo dute Afrika eta taldekideek Bilboko Kafe Antzokian. Euskal musikaren merkatua heavy eta rockaren mugez kanpo bizi daitekeela bikain erakusten du *Afrika, Entzun!*-ek Musika gogor, indartsu eta *kañeruaz* gain, bestelako doinuak ere jorratu ditzakegu, beraz. Bestelako doinueta saiakera egiten lehenak ez dira Afrika eta konpania, baina azkenak ere ez daitezela izan.

Diskoa >

Mikel Zarate gogoan

Mikel Zarate idazlea zendu zela 25 urte dira, eta urteurren hori gogoratzeko Lezama eta Txorierrri eskualdean zenbait ekitaldi antolatu dituzte Zorritzetan euskara elkarteak eta Lezamako udalak. Eginkizun horien barruan “Ekidazu” diskoa kaleratu dute. Gaizka Peñafielek sortu ditu diskoa osatzen duten 4 kantuak, eta Gorka Zarate idazleak (Mikel Zarateren ilobak) jarri dio berba musikari. Diskoan abeslari eta musikari ezagunek hartu dute parte, hala nola, Natxo de Felipek, Anje Duhaldek, Mikel Markezek, Euskadiko Txalaparta konpaniakoek, Kepa Junkerak, Zea Mays-eko Aiora Erreterriak...

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (xviii)
Opor egunak
brontzeatzeko dira

Halako batean Dorre Bikien traza hartzen hasiak ziren liburu zutabe haiekin amaitu behar nuela erabaki nuen. Etxekoak harro samar ikusi nituen dorreari lehen “adreilua” kendu nionean, non-bait beren presioak funtzionatu zuen adierazle. Egiazki, espazio dezente kentzen dute neure eraikintxoek, eta goiz ala berandu grabitateari egindako desafioak bukatu behar zuen. Jakina, ez nien euren zorintasun unea zapuztu nahi, baina ez liburuak azokan salgai jartzeko mehatxuek ezta bestelako presioek ere, ez zuten inolako eraginik izan neure erabakian. Azkenaldian geroz eta ozenago mintzo zitzaidan barne ahotsari kasu egin nion, besterik gabe, niretzat sekulako sufrimendua baita liburuak aurrez aurre eduki baina haiek irakurtzeko astirik ez izatea. Eta horrela, batzuek Aste Santua hondartzara zein mendira joateko aprobetxatzen duten bezala, Italo Svevo, Alejandra Pizarnik eta Imre Kertesz konpainiarekin paseatu dut azken egunetan, batzuetan alaiago, bestetan tristura ezkutatu ezinik, aldartea kontatzen zidatenaren arabera moldatuz. Ezin dut ukatu: jai egunak amaiturik, besteak beltzaranago daudela ikus-tea amorru pixka bat ematen du. Zer nahi duzue esatea, estetikaren garaian bizi gara. Baina oraingoan, eguraldiak nire alde egin du. Ez naiz damutzen. Neu ere “brontzeatuta” bueltatu naiz oporretatik. Mentalki, behintzat. 4

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Biziraupena lege

Xabier Montoiak **Blackout** liburua plazaratu berri du, **Hilen bizimoldea** trilogiaren bigarrena

Jean Etxegoien, Lehen Mundu Gerran heriotzari ihes egin zion soldadua, boxeo-ari buruz idazten duen kazetaria dugu naziak harturiko Parisen. Bere ahotik ateratzen diren aurreiritzi gupidagabeak entzunda, okupatzaileekin dituen negozioak ikusita, garai bateko anarkista gazte eroa etsaiaren aldera lerratu dela pentsa dezakegu. Alabaina, estuasunik ezagutzen ez duen Etxegoienen oraingo bizimodua Parisko kaleak bezain hits eta iluna da. Emagalduen zein alkoholaren konpainian kontzientzia arazoak desagerrarazten ahalgintzen da.

«Jean Etxegoien, boxeoaz idazten duen kazetaria, da protagonista»

Gerra piztu da. Aliatuek geroz eta esparru handiagoa betetzen dute; geroz eta ahulagoa da nazien erabaki ahalmena. Etxegoien beldur da. Garesti atera ahal zaio egindako apustua. Baina zerbaitek esaten dio ezetz, ez dela bere ordua heldu. Oraindik zer esanik edukiko du Etxegoienek.

Hezur gabeko hilak (Susa) liburua argitaratu zuenetik bost urte igaro direnean,



Argazkian, Xabier Montoia

Blackout (Susa) nobela dakarkigu Xabier Montoiak. Lehenengoan protagonista genuen Jean Etxegoienen ibileren jarraipena da *Blackout*, baina oraingoan kokalekua eta testuingurua aldatu egin dira: frontetik hiriburura aldatu da Etxegoien; Lehen Mundu Gerran borrokan ibili ondoren Bigarrenaren atarian dago orain.

Hilen bizimoldea izendatu duen trilogiaren parte dira *Hezur gabeko hilak* zein *Blackout*, eta dagoeneko Montoiak pentsaturik dauzka zikloa itxiko duen lanaren izenburua eta testuingurua: *Elektrika*-k Aljeriako gerra izango du hizpide. m

liburuak



Lauterdi pirataren...
Aitzpea Goenaga
Txalaparta

Urtero lege, Atxu 11 urteko neskatoak aitonaen base-rian igaroko ditu oporrak, kostaldean; aurtun, gainera, Lauterdi pirataren kontuak ezagutuko ditu. Altxoraren berri izan orduko, misterioa nagusituko da egunerok, eta ezustekoak bata bestearen atzetik helduko zaizkio Atxuri.



Tango urdina
Aitziber Etxeberria
Erein

Narrazioaren haria eroaten duen Jose Mari etxeko zirrikitu bate-tik aldameneko etxebizitzako bainugela ikus dezake; han losune gazte liraina bizi da. Maitasun gorabeherak dira nagusi idazle zaraiztarren aurreneko eleberri honetan, idatzi duen aurrenekoa, baina iazko Opera Prima saria irabazi zuena.

Telebista >

Zeruko begiek dakusate

Aitor Gisasola getxoztarra da *Euskal Herria Lau Haizeetara* dokumental arakastatsuen errealizadorea

Getxoztar batek, Aitor Gisasolak, dauka errealizazioaren ardura *Euskal Herria: Lau Haizeetara* dokumental sorta arakastatsuan. Zooming ekoiztetxeak ETBrentzat eginiko lana da *Euskal Herria: Lau Haizeetara* –edo erderazko bertsioan, *Euskal Herria: La Mirada Magica*–. Zati bitan bana daiteke orain dela lau bat urte hasitako dokumental sorta hau: batetik 30 bat kapituluz osatutako sorta, eta bestetik, telebistaz ematen dabiltzan *Euskal Herria: Lau Haizeetara II*. Azken sorta hau 14 bat kapituluk osatzen dute, eta azken kapituluei

«Gertatu zait ondo ezagutzen dudan leku bat airetik ikusita ez ezagutzea»

amaierako ikutuak ematen dabilta. Zeruko begiek Euskal Herria zelan dakusaten erakusten dute dokumentalok, “txori motor-dun” baten bidez hegazti-begirada eskainiz.

Gure eskualdeko errealizadore maiteak aitortu digunez, gure herriak guztiz bestelako itxura dauka airetik ikusita: *“gertatu zait ondo ezagutzen dudan leku bat airetik ikusita ez ezagutzea. Hiriak-eta, bai, Guggenheim ikusita badakizu Bilbon zaudela, baina herri txikiak elkarren antzekoak dira”*. Katalunian



Goian, Aitor Gisasola *Euskal Herria: Lau Haizeetara* saioko errealizadorea; behean, saioko irudi bat

egin zen lehen aldiz era honetako dokumental sorta, baina ez omen zuen hement-goalako arrakastarik izan. Bertako arrakasta ikusita, kanpoko eskaerak izan dituztela esan digu Aitor Gisasolak: *“Telemadrid-ek Madrili buruzko sorta bat egitea proposatu zion produktonari, eta 17 bat kapitulu grabatu ditugu, arakastatsua izan ei da”*. m

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

web > MCD

Aurreko diskoagaz egin zuten lege, azken diskoa ere sarean jarri du MCD talde bilbotarrak. Ez sarean jarri bakarrik, saretik doan jaisteko aukera ere ematen dute, hau da, internet bidez MCDren azken diskoa, Macarrada, oso-osorik eta doan eskuratu daiteke. Aurreko diskoagaz ere berdin egin zuten eta 17.000 bat pertsonak jaitsi zuten saretik. Hala ere, beste 14.000k erosi egin zuten CDA. Orain ere aukera hori eskaintzen dute, eta 7 euroan jarri dute salgai. Punk-rock talde bilbotarra 1978an jaio zen, baina bitxia bada ere, sortzaileetako batek ere ez du gaur egun jarraitzen. Macarrada diskoa izen bera daukan web-orrialdean lortu daiteke, eta aurreko diskoa, imbecil.com ere izen bereko web-ean eskuratu daiteke. Hala ere, 7 euro ordaintzea ere ez da larregi.

www.imbecil.com / www.macarrada.com



aldizkaria etxean
jaso nahi baduzu
94 491 13 37

UK Urte Kostako Aldizkaria 171 posta kutba
Arrezi 6, 4. solairua S. bulegoa / 48900 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

01 SOPELNETs.L.



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥
ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94 676

irabazi UKrekin

MUGI

FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis Esgintzeak
× Erreuma × Kiroleko

deitzen duenak
masai bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELANA 17 67



Sarrerak debalde!

06 ostegunaa: 2 sarrera / 22:00

HABEAS? CORPUS

09 igandea: 2 sarrera / 21:00

HOWE? GELB . . .

13 osteguna: 2 sarrera / 22:00

BETAGARRI, OBRIN

94 491 13 37

Kafe Antzokiak
antolatutuen ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu.
UKra deitzen duten pertsonen artean bina sarrera
zozketatuko dira

[sarean]

Informazioa nabigatu barik

RSS formatuak izugarri errazten du hainbat komunikabideren **berrikuntzei jarraitzea**

Internet sortu zenean (edo ezagutu genuenean behintzat) nabigatzeari ekin genion denok. Webgune batetik bestera saltoka genbiltzan, ia beti noraezean. Gero, webguneak markadoreetan (Explorerrek 'favoritos' deritzenetan) gordetzen hasi ginen. Horrela darraigu gaur egun ere: goizero, zer berri den jakiteko hainbat webgune arakatuz, direla lauzpabost egunkari, dela aldizkariaren bat, agian weblogen bat... Eta, askotan, bisitatutakoek ez dituzte edukia eguneratu, eta "bidaia" alferrik egin dugula senti dezakegu. Benetan sistema aspergarria.

Hori konpontzeko dator RSS. Sistema honen bidez, guk geure ordenadorean doaneko programa bat jartzen dugu (Windows-erako RSS Reader, Li-

nuxerako Straw eta MacOS X-erako netnewswire) eta gure gustuko webguneak gehitzen ditugu bertan. Hortik aurrera, programa horrek esango digu noiz sartu diren berrikuntzak. Titular guztiak eroso-eroso leku beretik irakurri, eta, zer edo zer interesa bazaigu, estekari jarraitu eta guri interesatu zaigun berria irakurri ahal izango dugu.

Zenbait euskal webgune hasiak dira aukera hau eskaintzen, Luistxo Fernandez euskaldun internauta adituak bere orrian aipatzen duenez. Eta gehiago izango dira hemendik gutxira. Hauen berri jakiteko, ikus "Luistxoren blog eleanitza". Benetan euskal webgune dotorea. ^m

www.manterola.org/familia/luistxo/blog/es

webgida

LA PETITE

>www.lapetiteclaudine.com

Emakumea izatea eta zenbait gauzez hitz egitea arraroa da oraindik. Badirudi zenbait gai emakumeentzako tabu izan behar direla. Zorionez, badira honelakoei aurre egiteko prest dauden emakume jatorrak. Ez galdu Lapetite-k eskainitakoak: bere webgunera jo eta haren menpekotasuna sortuko zaizu, ikusiko.

MUSURIK?

>www.kissforthecamera.com

Musuak, musuak eta musu gehiago. Ez duzu bestelakorik aurkituko webgune bitxi honetan. Musu guztiei nota bat jar diezakezu, eta puntu gehien jasotakoak ere ikusteko aukera ez galdu.

Sarean aurkitu ditugu > Animalia bitxiak



Uxue Barkos > Nafarroa Bai-ko diputatua

“25 urtean lehen aldiz, nafarrok Kongresuan hitz egin dugu”



Uxue Barkosek kazetaritzara itzultzeko asmoa dauka agintaldia amaitutakoan

Hilabete gutxi dira Uxue Barkos 39 urteko iruindarrak kazetari lanbidea –aldi batez, jakina– utzi zuela, baina dagoeneko haren falta igartzen duela aitortzen du. Hala ere, ez da damu Nafarroa Bai-ri baietz erantzun izanaz. Datozen lau urteak Diputatuen Kongresuan Nafarroaren alde lanean emango ditu Barkosek, eta ondoren –asmo hori agertu du behintzat– 1991tik lantokia duen ETBra itzuliko da. Edo hala uste du berak.

—Erantzukizun handia duzula uste duzu?

—Bai. Badakizu noiz sentitu nuen? Hitzaldia idazten ari nintzela ez nuen pentsatu, baina hitz egiten hasi aurretik, konturatu nintzen azkenengo 25 urteotan lehenengo aldiz hitz egin behar genuela inbestidura hitzaldian nafarrok, eta ez nafar abertzale edo euskaltzaleok bakarrik, baizik eta nafarrok oro har. Orain arte Nafarroak hautatu duen ordezkaritza PPren eta PSOEren barruan galduta geratu da. Une horretan errespetu handia sentitu nuen, eta pentsatu nuen: nire

hitzaldia ba al da nafar guzientzat? Gero konturatu nintzen baietz, eta poz handia eman zidan.

—Zertan egingo duzu indar gehien?

—Alde batetik, Konstituzioaren erreforma. Inbestidura hitzaldian esan nuenez, 1978koa iraganaren konstituzioa da; pentsa zer-nolako giroa zegoen orduan, zer-nolako armada, nola idatzi zuten Konstituzio hura. Geroa eraikitzeko beste Konstituzio bat behar da, eta hala esaten ari gara 50 diputatuk baino gehiagok, horien artean PSOEko 21ek gut-

xienez. Bestetik, Aznarrek utzitako tresnak dauzkagu. Nik hiru aipatuko nituzke: Alderdien Legea, Terrorismoaren Kontrako Ituna eta Kode Penalaren azken erreforma. Hori gaingitu egin behar da.

—Euskarak Nafarroan bizi duen egoera izango da zure lan-esparruetako bat, zalantza barik...

—Jakina. Bi ardatz daude lanerako. Alde batetik, Kongresuan bertan euskaraz egiteko aukera izatea. Aurreko egunean, lehen aldiz entzun da Kongresuan euskara. Hitz batzuk baino ez, baina horretarako presidentearen

«Nafarrokoa da bere hizkuntzaren kontra dabilen Europako gobernu bakarra»

baimena behar da. Hori ez da normala! Bestetik, nik babesa eskatuko diot Gobernuari, egun Nafarroako Gobernuak euskarari begira duen jarrera gaingitzea. Nafarrokoa da bere hizkuntzaren kontrako politika egiten duen Europako gobernu bakarra. Eta hori EBk dio, ez geuk.

—Jokamolde aldetik aldaketa nabarmenak dakartza Zapaterok, baina Euskal Herriarentzat zeozer aldatuko da?

—Berak giroa baretuko duela iragarri zuen, baina ikusiko dugu egia den ala ez. Denok poztu gara Zapaterok agertutako jarreragatik, baina egia da, halaber, bera baino lehenago izan denaren jokamoldea hobetzea ez zela zaila. Ikusi beharko dugu jarrera horrekin batera benetan politika egiteko beste modu bat dakarren. Oraindik ez dakigu ziur zein den Zapateroren PSOE: Maragallena? Bonorena? Nire aldetik, denbora izango du bere asmoak aurkezteko, baina egin behar nagusietan maila ematen ez badu, salatu egingo dugu. ^m

Getxoko Euskara Zerbitzuaren ekimena

Getxoko toponimia liburu batean



Argazkian, liburuaren egileak: Mikel Gorrotxategi eta Sofia Suso

Apirilaren 22an “Getxoko leku izenak” liburua eta herriko hainbat leku-izen erakusten dituen Getxoko mapa aurkeztu zituen Getxoko Udalak. Mikel Gorrotxategik eta Sofia Susok osotu duten behar honetan, herriko auzo, kale, etxe, erreka eta abarren izenak ekartzen dizkigute; desagertzeaz zeudenak berreskuratzeko, desitxuraturik zeudenak ezagutarazteko, eta batez ere, erabilera bultzatzeko helburuagaz.

Orain hiru urte, Getxoko Udalak herriko leku-izenen ondarea jasotzea premiazko beharra zela erabaki zuen. Herriko zenbait toponimo desagertzeaz zegoen, eta beste batzuk, ahozko berbeta dela eta, oso desitxuraturik zeuden (ad. *Ibarreko errota / Iberkorta*), eta baten bat ere, izen berriren batek ordezkatuta (*Bidezabal* hondartza *Arrigunaga* ordez).

Biltze eta sailkatze behar horretan Sofia Suso eta Amagoia Aurrekoetxea ibili ziren hamasei hilabetez. Horretarako, hainbat artxibo arakatu

zuten, baita lekukoen laguntza jaso ere. Toponimiaren esparru guztiak hartzen zituzten bildutako izen horiek guztiek: etxeak, iturriak, soroak, elizak, kaleak, errekek... Hala ere, aztergaia hain zabala zenez gero, XVII. eta XX. mendeen arteko toponimoak baino ez zituzten jaso. Bestalde, Euskaltzaindiak onomastikarako ezarritako arauak oinarri hartuta, toponimo guztiei izen normaldua ere eman zieten orduan.

Baina behar hura ezin zitekeen bilketa hutsean lotu: ezinbestekoa zen herrian zabaltzea, herritarrei

ezagutarazteko eta erabilera bultzatzeko. Galdutako toponimia berreskuratzea ere helburu garrantzitsu bihurtu zen. Helburu horri lotzeko asmoz osotu berri dute, beraz, Mikel Gorrotxategik eta Sofia Susok, behar hau. 1.259 toponimo biltzen ditu guztira eta bakoitzak fitxa moduko bat dauka, irakurleak izen

«Hiru urte behar izan dira herriko 1.259 leku izenak jasotzen dituen liburu ederra egiteko»

horren jatorria, kokalekua, dokumentazioa eta zein testuingurutan agertzen den jakin dezan.

Liburuagaz batera, Getxoko mapa paratu dute. Mapa-orriaren alde batean herriko auzo, etxe, erreka, ermita eta abarren izenak ikus ditzakegu. Atzeko aldean, berriz, airetik egindako udalerriko argazkia azaltzen zaigu, antzinako eta egungo argazkiakaz apainduta. ^m

JAKINGARRI

- Izenburua:** “Getxoko leku izenak” eta “Getxoko mapa”
- Argitaratzailea:** Getxoko Udala (Euskara Zerbitzua)
- Egileak:** Mikel Gorrotxategi eta Sofia Suso
- Ikertzaileak:** Amagoia Aurrekoetxea eta Sofia Suso
- Edukia:** Getxoko 1.259 leku izen biltzen ditu, horien inguruko zenbait argibidegaz batera.

Esakere “Kolko handiko gizona”

Umek direz etxeko alaitasunel! Bai eta kaleko bere, sarri-askotan: zer da ederrau norberan seme-alabat-xukez paseotxu bet egite baiño... Gero ta ugeriau ei dire guraso baka-rreko familik, baia gure irudigillen senak ondo erakusten daun lez, ondo kalkula beharreko kontu da zenbet seme-alaba maneja ahalko dauzen norberak, beso asko behar direz, eta ahal danik eta pazentzi handiena, *kolko handiena*, ume kua-drillatxu bet inor bidean galdu barik kale batetik bestera eroteko.

(R.M. Azkuek baturiko esakera bat dozue hau; beran “Euskalerriaren Yakintza” lanean aurkituko duzue)

Gurberbake

ZELAN ESAN

Denda batean zozer erosteko (II)

Berbakere 37n zeozer erosten goazenen erabilli leitezen esakune batzuk ikusi genduzen, bai eta adibide moduko alkarrizketa bat, fruntadenda bateko denda-rin eta bezerun arten egiñeko. Berbakere honetan beste hiru alkarrizketatxu iku-siko doguz, beste denda mota batzuteko adibidek eukiteko (ez dot esango ze motako denda dan bakotxa: ia igerten dozuen zuok!). Testua: **Xabi Bilbao**

—Arrastion, (emóiostezuz) bi mesedez, láugarrena ikusteko.

—“Glup”. Bi ber (behar) dozuz?

—Bai bi. Ixen leitez erdiko alden yárriteko?

—Bai, yesarleku asko dauz libre. Zazpigarren lerron, zer deritxozu?

—Erdiko álden bádauz, ederto.

—Ba hemen dekozuz: bedrátzi euro.

—Bedrátzi: hámen dekozu.

—Eskerrik asko.

—Zuri, agur.

—Egunon, honek katálogok diño merketu in dozuezela hogétamaseikok. Hálan da?

—Bai, hálantxe da. Zénbet gúre dozuz?

—Eta hogétalaukok bardin dauz?

—Zelan bardin, lehengo prezton?

—Ez, merketúte, béstek lez.

—Ez, merkéau 36kok bákarrik dekozuz.

—Bueno ba, emóiostezuz hiru.

—Ederto. Hemén dekozuz: hamábi euro.

—Hamábi: hor dau.

—Eskerrik asko.

—Bai, agur.

—Aupa, ataráostezu niri bere hólau bat.

—Limoiágaz?

—Ez, limoi barik. Bóta bildur barik!

—Bildur barik? Gero kapaz zara kántaten hasteko, horrék émoten deust bildurre niri!

—Bueno, bueno, zortzíko edérnak kanta duz hemen zuk eta biok.

—Bai, hólán dekot negozio hutsik...

—Hori ardaux iyen dáuleko íxengo da, gixona! Imíxu (imiñi egizu) merkéau...!

—Bai, zu hona étorko zentikez bíziten ordun!

I aki

Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ^{ETA} TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plazaT: 4302345

Algorta

Torrene 2, ALGORTA
T • 94 491 12 71

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

Txangoetan ere bertso-kantari

Algortako Bertsolari Eskolaren sus-
traietara iritsi gara: San Nikolas
Ikastolara. Urte askoan gure egoi-
tza izan zen eta askok hango janto-
kian bota genituen gure lehen ber-
tsoak mikro aurrean. Malenkoniak
alde batera utzita, goazen bada 5.
maila A-ko ikasleak ezagutzera!

Testua: **Nahikari Ayo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

“Aizue, Nahikari dator bertsolaritza ira-
kastera!” Ezagutzen ninduten, gela horreta-
ko askoren begiralea bainaiz Algortako
Scout Taldean. Nolabaiteko hotzikara sartu
zitzaidan gorputz barnean, erronka handia
zen niretzat. Oraingoan bertsolaritza ira-
kastera nindoan, ez udako kanpamentura,
ezta zapatu arratsaldea beraiekin pasatzera
ere. Ondo bereizi zituzten bi rolak eta gela-
ko giroa ezin hobea da!

Lan erritmo polita dute, langile finak
dira eta horren erru handia Sorkunde ande-
reñoak dauka, hor ibiltzen delako *kaina*
sartzen etxerako lanak egiteko, fitxak...
Gainera, hemen bazuten bertsoaren berri
eta gogo handiz hartu dituzte eskolak.

«Autobusa hondatu, bide erdian geldi eta zer bururatuko? Bertsotan hastea!»



San Nikolas ikastolako 5. A-ko bertsolaritza taldea.

Hain gogotsu hartu dituzte, eze irteere-
tara ere bertso-orriak eramaten baitituzte
abesteko! Azaroan txangoa egin zuten
Iparlat-era lan-sektoreak lantzen zeudelako.
Txango berezia izan zen. Autobusa bide er-
dian hondatu zitzairen eta ordu askoan egon
ziren bide erdian geldituta. Eta badakizue zer

bururatu zitzairen denbora pasatzeko?
Bertsotan hastea! Egia aitortu behar bada,
bertso onak ziren eta ikaskide guztiek har-
tu zuten parte. Hurrengo eskola-egunean
abestu zizkidaten eta... ederrak benetan!
Eutsi goiari neska-mutilok, San Nikolas
ikastolako bertso-tradizioak merezi baitu! m



ALBEko gaztetxoak



Joanes Igeregi

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Gaztetxoan artean
beteranoena,
bakarka egitea
hori dugu pena.
Baina hurrengorako
aldauko da dena,
zahar denen artean
ni neu gazteena.

Lau oinak emanda

Zapatuko kronikek
zioten **horrela**,
Ipar Uriberentzat
aurtengo **txapela**.
Besteek uste zuten
hobeak **zirela**,
baina epaileeri
galdetu **bestela**.

Azken puntua emanda

Egun batean ipini ginen
txapelketari begira,
ta epaileak konbentzitzeko
makina bat tira-bira.
Azkenerako lortu genuen
dirua emanda tira,
apurka-apurka lana eginez
fruituak jasotzen dira.

Maiatzaren 30ean



Ibilaldiak laguntzaileak behar ditu!!!

Gauza jakina denez, Sopelanako Ander Deuna eta Leioako Betiko ikastolak
Ibilaldia 04 antolatzen dabilta. Ikastola bietako guraso, irakasle, ikasle eta
ikasle ohi gehienak buru-belarri aurkituko ditugu antolakuntzak eskatzen
dituen lanetan. Ibilaldiaren eguna ahalegin berezia izango da eurentzat. Izan
ere, egun horretako lana betetzeko ezinbestekoa izango dute denbora apur
bat eskaini ahal dieten guztien laguntza. Horregatik, dei egiten digute guztioi
laguntzaileen zerrenda bat osatzeko.

Beraz, aupa eta animo, UK-ko irakurle hori: hementxe eskuman
daukazku Ibilaldiko antolatzaileekin harremanean erraz-erraz jartzeko bideak.

Izena emateko>

● Telefonoak>

94 480 23 95 / 665 709 165

● e-mail> ibilaldia@ikastola.net

● edo> Betiko Ikastolan

* aurreibilaldia

GURE GARAICO DANTZA

Unibertsitateko Dantza Taldearen *Enborra* ikuskizuna
Algortako Getxo Antzokian, maiatzaren 3an (astelehena),
arratsaldeko 7:30ean

ABESBATZAK

Leioako San Juan Bautistaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko
Abesbatzaren kontzertua, maiatzaren 6an arratsaldeko 8etan
Leioako Musika Eskolako Auditoriumean. Sarrera, dohainik.



LAGUNDU IEZAIOSU:
GURE KREDITUA
MEREZI DU

PILAR-ek
EKIMENA du,
GAITASUNA du,
300€ besterik ez
du behar janari-
denda txikirako...



MIKROKREDITUEN KANPAINA MANAGUA HIRIAN

Ekarpen solidarioa egin

■ Komunitateetako eta autoenpleguko proiektu txikiatarako laguntza ■ Informazioa: 944 162 325 - Diru-sarrerak: BBK 2095 0105 30 9103092112





gaizka escudero / villabotas-ekoa



itsaso arana / jolastoki-koa

Txahal hegala

Oso erraz prestatzen den platera duzue hau, baina betiko legez, kalitatezko jeneroa erabiltzean datza arrakastaren parterik handiena. Hasteko, majestikean oliba oliotan frijitu okela, apur bat. Gero barazki guztiak ondo txikituta gehitu: azenarioa, tipula, piper berdea eta gorria, berakatz eta tomatea. Ondoren basobete koñak, litro erdi ardo zuri eta ura (basobete bi) gehitu. Eduki hau guztia apur baten sutan eta majestikaren tapa itxi. Ordu erdi inguru behar du egiteko. Gero, hau da, okela eginda dagoenean, su labean sartu, su gogorrean, okela erre eta kurruskatsu bihurtu arte. Kitto. Plater hau letxugarekin edota patata frijituekin lagundu daiteke. m

osagaiak (lau lagunentzako)

• kilo bi txahal begal • tipula bat • piper berde bi • piper gorri zati bat
• azenario bat • sei berakatz ale • tomate bi • pipermin ale bi
• liru erdi ardo zuri • basobete koñak



Galderak

ardoez egiten ausartzen ez garen galderak

- 1. Arrainekin ardo beltza edan daiteke?**
Arrain urdina bada, oso ondo doakio ardo beltza. Beltza bakailaoarekin, erreboiloarekin eta saltsan egiten diren arrainekin oso ondo doa. Ardo beltz hauek arinak, gorputz gutxikoak eta gazteak izan behar dute.
- 2. Ardoa denbora pasatu ahala hobetu egiten da?**
Ardoa aldatzen doa etengabe. Hobera edo txarrera egin dezake. Denbora igarotzen den neurrian, samurtasuna eta espezien aromak gehiago azaltzen dira; mahatsaren ezaugarriak eta lurraren sena, berriz, galduz doaz.
- 3. Ardoak bidaiekin txarrerara jotzen du?**
Gaur egun, ardoak edozein bidaia gainditzeko prestatuta daude. Bidaia baten ondoren 10 egun itxaron behar dira ardoak bere onera itzultzeko.
- 4. Ardo zuriak urteen poderioz txarrago jartzen dira?**
Egurretan egindako ardo zuriak bost urte igaro ondoren hobetzen dira. Egurretan fermentatutako ardo txuriak bi urte igaro ondoren hobetzen dira.
- 5. Ardo gorriak hasiberrientzako ardoak baino ez dira?**
Ezta pentsatu ere! Kontua da ardo hauetan sorterriko mahatsaren kalitatea ez dela aintzat hartzen. Ardo mota honetan freskotasuna, gaztetasuna eta fruta zaporea edukitzea estimatzen da.
- 6. Mahats beltzen mustioa beltza da?**
Mahats zurien kolore bera du. Ardoaren kolorea mahatsaren azalak ematen du. m

Salsidu taberna

Lagun taldeen topaleku berria Algortan



Argazkian Ainhua eta Jose Luis Monzon

Askorentzat ezaguna izango da Algortan izenkode duen kalean dagoen Salsidu taberna. Txikiteo taberna zan da beti, baina orain dela gutxi Monzonek eta Ainhoak hartu dute eta ukitu berria eman diote, berriztatze txiki bat egin ondoren. Aurretengo martxoaren 8an zabaldu zuten. Aurretik, bai Ainhoak eta bai eta Monzonek ere ostalaritzan egin dute behar; Bodeguilla Butronen lehenengoak, eta Taberna Berrin bigarrenak. Eskarmen-tua badute, beraz, behar honetan. “Behar gehiago egiten dugu orain, baina pozik eta itxaropentsu gaude taberna berriagaz”, zioen Monzonek.

Astegunetan gosariak eta pintxoak eskaintzen dituzte: tortillak, sandwichak, bonito-pintxoak... Asteakabuetan, osteran, pintxo landuagoak egiten dituzte. Etxeko berezitasuna, hala ere, *gildak* dira.

Txikiteo orduetan, gazte lagun-taldek hurbiltzen dira eta oso giro alaia sortzen da. Bestalde, telebistan ematen dituzten rugby partiduak giro onean ikusi gura dituenarentzat, hauxe da leku egokiena; Salsidun rugbya futbolaren aurretik dagoen kirola da eta. m

SALSIDU TABERNA
Salsidu etorbidea, 9 ALGORTA
Telefona: 94 430 85 34

Asador



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura
- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

KONTXI ZUÑZUBISKAR URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea
adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen
Bilbo-Plentzia errepidea
Ellexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

SATISTEGI CAFE
ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!
BASAGOITI ETORBIDEA 51 ALGORTA

prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikabasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA

Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Buruan proiektu eta ideia on asko daukazazu, baina inguruan daukazun jendeak es dizu gehiegi laguntzen. Etzazu pazientziarik galdu, Ura, eta saia zaitetz dena aurrera eroaten.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Erosoegi bizitzeak lanpostu hobe bat lortzea oztopatuko dizu. Gauza berriak probatzeko prest egon behar duzu, baina munduan lana baino gauza garrantzitsuagoak ere badaudela jakin beharko zenuke.

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Autoa matxuratuko zaizu, eta konpontzea baino berria erostea merkeago aterako zaizunez, azkenean berria erosiko duzu. Hurrengoan arreta gehiago ipini ezazu gidatzen zoazenean, eta polikiago joan zaitetz.

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Etzaitzez lanagatik gehiegi arduratu, horrela ez daukazu dibertitzeko astirik ere izango. Lasaitu zaitetz, Aitzurra. Medikuaengana joan beharko duzu hortzetako edota hezurretako arazo baten erruz.

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 18)
Saia zaitetz zaren moduan onartzen zeure burua. Behin hori onartuz gero, hobetzeko egin behar dituzun aldaketa guztiak egin ahal izango dituzu. Seme-alabakaz harreman oso ona izango duzu.

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hamabostaldi honetan erabakiak azkarregi hartu beharko dituzu, eta horrek zorabio modukoa sortuko dizu, baina ez zaitetz larritu, zortea zeure alde izango duzulako eta gauzak ondo irtengo zaizkizulako.

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Egun hauetan aldaketa batzuk egin beharko dituzu zeure bizitzan; lanean ere haize berriak dotozkizu. Ados ez egon arren, onartu egin beharko dituzu aldaketa horiek guztiak, zeure onerako izango dira-eta.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Batzuetan jendeari gehiegi eskatzen diozu, eta orduan ez zara inorekin gustura sentitzen. Saia zaitetz jendea den bezala onartzen, bestela ez duzu inor edukiko aldamenen norbaiten beharra daukazunean.

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Gauza gehiegi egiten zabilta, Iratzea, eta bakarren bat uzten ez baduzu, ezingo duzu denakaz aurrera egin. Eguraldiak gorabehera handiak dauzka oraindik, eta zure etzarriak nabaritu ditzake.

META

(Irailak 17 urriak 16)
Ohikoa baino gehiago aurrezten saiatuko zara, baina ez zaitetz pasa, ze ingurukoak nazkatuko dituzu zure jarreragaz. Seme-alaben gastuak zientzuk diren jakiten saiatuko zara, eta zugaz haserretuko dira.

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Hurrengo hamabost egunetan bidaia bat egiteko aukera izango duzu, atzerrira eta oso urrutira. Gainera, zure gorputzak biziki eskertuko dizu, eguneroko betiko arazoak ahaztu ahal izango dituzu-eta.

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
26tik 30era doazen egunak oso onak izango dira lan kontuetarako: lana badaukazu, baldintza hobeak lortuko dituzu, eta oso gustukorik ez badaukazu, aurkitu egingo duzu.
Azkenean, Negua!

mungia

oKINDegia


Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarriak. 3. Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bos-tehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua. Iodoa.

Soluzioak

I	N		N	T	U	S	T	A	S	V	A
A	M	A		A	O	I	A	I	A	I	A
A	L		L	A		G	A	R	I	G	A
I	K		U	N	A	L	E	Z	E	Z	E
B		T	R	A	B	A		B	A	L	A
N	U		R	I	A	U	A	I	R	I	A
O	H	A		V	K	I	T	V	G	A	I
L	E	T	V	B		O	R	I	N	N	I
O	I	Z		A	K	H	V	I	A	B	A
A	K		U	D	A	N	D	A	Z	L	A

Luma

eUSKALDUNON

denbora-pasa eta hitz jokoen hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HIRIA

LURRALDEA..... P.K.

TEL. E-MAILUA

KONTU KORRONTEA:.....

LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutxatila 20300 IRUN
Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAIL: luma@xedera.com

www.xedera.com

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Alemaniako Mönchengladbach hirian jaio zen 1945ean.
- Guztira lau urte eman ditu gurean beharrean.
- Bere sorterrira itzuliko da lanera laster.

> Aurrekoaren erantzuna: Jorge Fernández

> Irabazlea: **Iñaki Balsategi**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita



ALGORTAKO EGUNKARIAK DENDAK UTZITAKO IRUDIA

San Inazio eskola, mende hasiera

Irudiaren kalitatea egokiena ez bada ere, argazkiak berez duen balioagatik argiataratzea merezi zuela erabaki genuen. Bertan, Algortako San Inazio eskolan mende hasieran ikasten zuten mutilen taldea duzue. Irakaslea, edo garai hartan esaten zen legez, *maestro*, Dionisio Yarza jauna zen. ^m

GOITIK BEHERA ETA EZKERRETIK ESKUINERA

Lehenengo lerroa: Nicanor Dorronsoro, Jose Luis Cajigas, Jesus Alvarez, Ignacio Arzubiaga, Jose Mari Uribarri, Asensio ?, ?, Satur Barreiro, Paco Torrontegi, Roque Laka, ?, Crescencio Bengoa, Laureano Bengoa.

Bigarren lerroa: Ignacio Etxeandia, Heriberto Coto, ?, Federico Etxeandia, Tinio Peña, Higinio Lezamiz edo Elias Valdemoro, Dionisio Yarza (irakaslea), Luciano Sarria, Juan Sarria, Tomas Gaubeka, Pedro Fullaondo, Ignacio Fullaondo.

Hirugarren lerroa: Alfonso Iturregi, Manolo Sertutxa, Benito Gardezabal, Jose Luis Agirre, Jose Antxia, Alberto Barandika, Adolfo Sarria, Julio Garaizar, Jose M. Igual, Juanito Bidea, Anselmo Igual, Roman Perez.

Laugarren lerroa: Paco Alvaro, Mariano Iturregi, Aretxaga "Karantxa", Jose Antonio Agirre, ?, ?.

* Ambrosio Igualek bildutako informazioa.

EDURNE ORMAZABAL > Euskadi Gaztea irratiko koordinatzailea

“Hirietan gauez bakarrik ibiltzeko beldurik ez daukat”



Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.

Emakumea eta... (asko pentsatu ostean) oraindik ere bidea egiten.

Zein animalia gaz zatoz bat?

Oso animalia-zalea ez naizenez, batekin ere ez.

Zein liburu gustatuko litzazuke idaztea? García Márquez-en edozein.

Eta zein filman egingo zenuke protagonistaren papera?

Thelma eta Louise pelikulan Susan Sarandon-ek egin zuen pertsonaia.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien? Norberaren gabeziak gainditzeko saiatzen den edonor: Stephen Hawking, Martin Luther King...

Zure jakirik gogokoena. Orburuak (alkatxofak).

Aitortu dezakezun bizio bat. Utzi behar izan dudako arren, tabakoa.

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Los Angeles, Londres, Sizilia... Batez ere, hiri-zalea naiz.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Gaiztotasuna. Hamaika mila gauza barka ditzaket, baina kalte egin nahi hori ez.

Zer janzten duzu lo egiteko?

Neguan pijama eta udan kamisoi. Ez dut inoiz biluzik lo egiten.

Ezin zaitezke bizi... Irakurri gabe.

Zer gordetzen duzu sakeletan? Normalean ez ditut sakelak erabiltzen.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Liburutegi batera joan eta handik dozena bat libururekin irten.

Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?

Euskal Herrian bakea daukagula.

Ohitura txarren bat... Gauzei buelta gehiegi ematea.

...Eta sineskeriaren bat. Ez naiz batere superstizioso, batere, batere...

Zertan gustatuko litzazuke haragitzea?

Ez litzaidake gustatuko haragitzea, ez nintzatekeelako ni neu izango.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Madrilgo atentatuaren ondoren, telebistan ikusitako irudi batzuekin eta senitartekoaren adierazpenekin.

Zure azken erokeria. Hiri ezezagunetan gauez bakarrik ibiltzeko ez daukat beldurrik. Arriskua ez dut sentitzen. m

EDURNE ORMAZABAL — Bidaiazale amorratua dugu (itaunketa hau amaitu bezain laster, Txilerako bidea hartu zuen). “*Eta liburuekin konpultsiboa naiz*”, aitortu zigun bizitza profesionala musikari eta zinemari lotuta eman duen Edurne Ormazabalek (Tolosa, 1963); oldarkorra eta urteak gogoratzen oso txarra ere badugu. 30 urte baino gehiago dauzkatenek ederto gogoratuko dute bera *Katu Kale* saio mitiko hura aurkezten teilatu baten gainean. 1990az geroztik (sortu zenetik alegia), Euskadi Gazteko burua da, eta ia hamarkada osoa daroa Donostiako Zinemaldian beharrean, galak aurkezten eta sail ofizialeko filmen prentsaurrekoak koordinatzen. Edurnek disko gutxi erosten ditu, “*nire lanbideagatik eskura ditut*”. Eta denetarik entzuten du, “*baina Euskadi Gaztean entzungo ez liratekeen gauzak entzuten ditut etxean*”.